

Barrena

Oholtza bete artistaren kontzertu gogoangarria

Jendetza batu zen zapatuan Debako Musika Bandak Sunerekin eta Xabi Solanorekin emandako kontzertuan, eta esker oneko daude artistak / 19



Xabi Solano, Sune eta bandako kideak, kontzertuaren une batean. INMA ALBERDI

JAIA

Gaztienak taldeak irabazi du Elgoibarko LaRoita erronka

Ikusmin handia sortu du LaRoita kuadrillak antolatutako erronkak. Hamabi lagun lehiatu dira, hiru laguneko lau talde mistotan, eta jai handia egin du gazte jendeak / 5



Gaztienak taldekoak, kuadrillakoekin. AINHOA ANDONEGI

TRIATLOIA

Ultramad 515 iraupen luzeko triatloia irabazi du Iraitz Ferreira mendaroarrak

Hiru egunean 515 kilometro osatu ditu Madril inguruetan: 10 kilometro igerian, 421 kilometro bizikletaz eta 84 kilometro korrika / 8



Iraitz Ferreira. LAGATAKOA

TXIRRINDULARITZA

Azken prestaketak DH Ermua bizikleta-jaitsierarako / 11



PEDAL METAL

ELKARTASUNA

Afagi Alzheimer Gipuzkoa elkartearen alde ari dira egiten Mendaroko garagardo azoka solidarioa / 9



AINARA ARGOITIA

JAIK

Gaurtik igandera jaiak ospatuko dituzte Elgoibarko Urazandi auzoan eta Soraluzeko San Andresen / 3 eta 14

NIRE USTEZ

Nork bere haria du korapilo honetan



GOTZON ELIZBURU BERISTAIN
KAZETARIA

Uztailak 11 egun beteko ditu bihar, eta Soraluzen Asierren eta Iñakiren omenezko pilota txapelketaren 25. edizioko finala jokatu da. San Andres auzoko pilotalekuko harmailak leporaino beteta egongo dira, urtero bezala. Pilota txapelketa herritar hori ez da, ordea, kirol ekintza soil. Memoria ariketa bizi baten ekimen arrakastatsua da.

Asier Heriz eta Iñaki Saez soraluzetarrak 2001eko irailaren 8an hil ziren, auto istripuan. Lurdes Txurruka euskal preso soraluzetarra espetxean bisitatetik zetozen etxera bueltan. Espainiako Estatuak sakabanaketaren eta urrutzearen bidez hiru hamarkada pasaz euskal presoan eta haien senideen aurka aplikatu zuen espetxe politika ankerraren biktima izan ziren bi herrikideak.

"Gure herriak jasan behar izan dituen injustizien lagin baten berri izaten dute lehen eskutik"

politikaren ondorioz hildako beste hamalau euskal herritarrek biktima gisa aitortzeko inolako urratsik egin. Are, momentuz, gutxietsi egin ditu.

Istorio polita da pilota txapelketarena. Lehen edizioa Asier Herizek berak antolatuta zuen. Hurrengo urtean, Iñakiren eta haren omenezko txapelketa bilakatu zen. Urte hauetan guztietan dispertsio politikaren aurkako eta euskal presoan etxeratzearen aldeko mobilizazio ekintza potentea izan da Soraluzen. Pentsamendu ezberdinetako ehunka herritarrek parte hartu dute txapelketan.

Dispertsio politika amaituta eta euskal presoan etxeratzearen aldeko borroka fase berri batean sartuta, pilota txapelketa hori memoriaren transmisiorako ariketa herritarra bilakatu da. Gazte belaunaldi berriak egiten dira partaide. Haietako askok txapelketaren bidez jakiten dute nor ziren Asier eta Iñaki. Eta, hala, gure herriak jasan behar izan dituen injustizien lagin baten berri izaten dute lehen eskutik.

25. txapelketa da. Berezia. Eta hau dena ez litzateke posible izango, noski, txapelketaren antolaketan urte luzez ari diren militanteei esker ez balitz. Biba zuek!

GUTUNAK

88 milioi euro, pitzadurak eta erantzulerik ez

DUINTASUNA ELKARTEA

ELGOIBAR

Nola ez dira Urazandiko bizilagunak kezkatuta egongo? Etxeetan pitzadurak dituzte, lurra mugitzen sentitzen dute, eta, erakundeekin bilera bat lortzen dutenean, lehen baino zailagoa gehiagorekin itzultzen dira etxera. Ez dakite nork ordainduko dituen etxebizitzetan sortutako kalteak. Ez dakite zenbatekoa izango den hondamendi honen kostua. Eta inork ez du bere gain hartu erantzukizunik.

15 urte baino gehiagoko kudeaketa axolagabe eta ilunaren ondorioa da hau. Hiru alkate igaro dira proiektu honetatik: Etxeberria, Beitia eta Gurrutxaga. Guztiek egin dituzte promesak. Guztiak atera dira argazkietan. Baina inork ez du azalpenik eman. Gobernu-taldeak urteak daramatza informazioa ezkutatzeko, herritarrei zein oposizioari; eta, bilera bat egitera behartuta daudenean, alkateak ez du lasai galdetzeko aukerarik ematen.

88 milioi euroko proiektu publiko bati buruz ari gara, apiriletik geldirik dagoen proiektuaz; egonkortzea amaitu gabe, zundaketak egiten ari direla, kamioiak etengabe auzotik sartzen eta irteten, eta inork jendaurrean zenbatu nahi ez duen gainkostuarekin. Bitartean, geologoak, notarioak eta

teknikariak kontratatzen dira bizilagunei "arreta emateko"; elgoibartar guztion diruarekin ordainduta. Zenbat kostatuko zaigu hau guztia gaizki kudeatu dutenen ezgaitasuna?

Elgoibarko Duintasuna Elkartetik argi eta garbi diogu: Urazandiko bizilagunak ezin dira egoera honen aurrean bakarrik utzi.

Elgoibarrek azalpen argiak merezi ditu, aurpegia emango duten arduradunak eta kaltetuentzako irtenbideak. Ez dugu argazki eta promesa gehiago nahi.

Lan ordu poltsa bat euskara doan ikasteko

EH BILDU

ELGOIBAR

Iaztik, Batera Elgoibar deritzon euskararen aldeko egitasmoa garatzen ari gara hainbat eragile, kolektiboak zein norbanakoak. Elkartek, ikastetxe, euskaltegi, kirol klub eta merkatarik elkartek ia guztiak; ehundik gora eragile.

Helburua euskararen hedapena eta erabilera sustatzea da eta herri-itun bat egitekotan gara konpromiso batzuk bilduta. EH Bildutik bi mailatako konpromisoak proposatzen ari gara: Batetik, barrura begirakoak eta bestetik herritarrei begirakoak. Bigarren hauek dira gure jardun politikoaren muina. Baina hitzezko adierazpen hutsak egin barik, EH Bildu errealitate sozialaren baldintza materialak hobetzeko dago eta euskararen kasuan, bere egoera neurtzen duten

adierazleen hobekuntza bultzatzeko.

Zentzu honetan, proposamen bat aipatu genuen azken bileran: langileek euskara doan ikasteko lanordua poltsa bat edukitzea udal aurrekontuetatik finantzatuta.

Beharra handia da. Datuen arabera, hiru gauza ondoriozta daitezke: industrian gero eta presentzia handiagoa du euskarak, baina oraindik ahula; jendaurrean ari diren merkatarik-langile eta tabernarien artean mugatua da euskararen gaitasuna (300 langile euskaldundu beharko lirake); kirol klubetan ari diren entrenatzaile guztiak ez dira euskaldunak.

Nola hobetu egoera, jendeak denbora eta aukerak murrizten dituztenean? EH Bilduren proposamena da euskara ikasi nahi dutenei, ikastaroak eskaintzea lan orduetan. Jakina, langile horien orduak ordeztu egin behar dira. Nola ordaindu hori? Batera herri itunaren testuinguruan, EH Bilduk proposatzen du udal aurrekontuen bidez ordaintzea.

Gai hau aurrekontuen ohiko lehia politikotik at egoteko, hemendik gonbidatzen ditugu udalbatzan diren beste alderdiak, EAJ eta PSE, elkarrekin jartzera egin behar diren kalkuluak egin eta hiruren artean hurrengo urteetarako hitzarmen bat gauzatzeko.

Ederra eta baliotsua litzateke Elgoibarko euskarari aurrerapena ekarriko liokeen konpromisoa sartuko balitz lantzen ari garen herri itunean. Garaiz gaude, prest gaude.

Barrena[®]

DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarre.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarre,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Disenatu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kideak eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitateak

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behe
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako
Udala



Elgoibarko
Udala



Ermuko
Udala



Mallabiko
Udala



Mendarako
Udala



Mutrikuko
Udala



Soraluzeko
Udala



Babestutako hedabidea



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Trafikoan aldaketak izango dira Urazandin, Errezabalgo egonkortze lanen eraginez

Ondo bidean, irail hasierarako amaituko dituzte obrak

Ainhoa Andonegi

Errezabalgo mendi-hegala egonkortzeko lanen ondorioz, uztailaren 13tik aurrera itxi egingo dute Urazandi 19 eta 20. zenbakien aurreko errepide zatia, eta horrek hainbat aldaketa eragingo ditu auzoko trafikoan.

Orain arte, auzoko trafikoa noranzko bakarrekoa zen, zirkularra, baina obrek iraun bitartean bi izango ditu. Kalamua kaletik igo eta jaitziko dira autoak; beraz, kale horretan aparkatzea debekatuta egongo da obrak irauten duen artean. Orotara, 67 aparkaleku kenduko dituzte auzoan. Murrizketa horren harira, Herri Eskola egokituko dute aparkaleku moduan, eta DMP guneko aparkalekua ere datozen egunetan zabaltzea aurreikusi dute Udaleko arduradunek. Hortaz, 97 aparkaleku egongo dira guztira;

gaur daudenak baino 30 gehiago, alegia.

Egonkortze lanak

Bi pantaila osagarri eraikitzea erabaki dute: lehenengo pantailak etxebizitzetara eta bidearen

inguruko eremua egonkortuko duela azaldu zuten, tokiko egonkortasuna bermatzeko; hirugarren pantailak, berriz, mendi-hegal osoaren egonkortasuna bermatuko duela esan zuten.



Herri Eskola, aparkaleku gisa. ASIER ORBEA

Egitarau bete-betea prestatu dute Urazandiko jaiak ospatzeko

Gaurtik domekara bitartean denetarikoz ekintzak izango dituzte auzoan

A.A.

Urazandi auzoko balkoiak koloretako banderatzoz apainduta daude dagoeneko, eta egunotan jarri dituzte jaietako banderatzoz txikiak ere auzo osoan. 1981etik 1983ra ospatu zituzten jaiak estreinakoz Urazandin, eta, urteetan lagata egon baziren ere, pandemia ostean berreskuratu zituzten. Ordutik hona, ez dute hutsik egin, eta aurtengoa bosgarren urtea izango da.

Dena prest dago, beraz, asteburuan Urazandiko jaiak ospatzeko. Jai Batzordeak egitarau bete-betea prestatu du, eta gaurtik domekara arte festa nagusituko da auzoan. Jaiak hasteko, 19:00etan txupinazoa botako dute parkean, eta segidan, oliba-hezur jaurtiketa eta toka txapelketa egingo dituzte. Gauean, DJ Tillak



lazko jaietan. ASKASIBAR.

jarriko du musika, eta goizaldean, apar festa izango dute. Bihar, bestalde, Josejuren historiaurreko ikuskizuna, puzzle txapelketa eta Mauxitxaren kalejira izango dira goizean zehar, eta eguerdian paella-ja-

na. Mariatxiek girotuko dute bazkalostea, eta umeentzako tailerrak eta buruhandiak egongo dira arratsaldean. Gauean, Brilet talde elgoibartarrak kontzertua emango du, eta goizaldean, apar festa egingo dute. Domekan, umeentzako puzzle-garriak jarriko dituzte Herri Eskolan, eta haietarako apar festa egingo dute, jaiak amaitzeko.

Errifaren zozketa

Jai Batzordeak eskerrak eman dizkie Udalari eta jaien babesleei, eman dieten dirulaguntzagatik. Horri esker, etxetresnaz beteriko bi otarre prestatu dituzte errifaren zozketarako, eta etxetresna horiek beren beharren arabera aldatzeko aukera izango dute irabazleek. Domekan egingo dute zozketa, 15:00etan.

"Bidaia emozionala proposatzen du obrak, clown baten bidez"

ELUR ARRIETA MUSIKARIA

Zirku ikuskizuna aurkeztuko dute Kalegoen plazan

Ainhoa Andonegi

Lumina zirku eta musika ikuskizuna aurkeztuko du Musbika Ensemblerek eguaztenean Kalegoen plazan, eta aurpegi ezagunak ekarriko dizkigu obra horrek: Elur Arrieta perkusioan eta Aitor Guisasola clown rolean. 22:30ean izango da emanaldia.

Zertan datza *Lumina* ikuskizuna? Bilboko Udalak antolatzen duen Musika-Musika nazioarteko jaialdirako sortu genuen ikuskizuna da. Publiko guztientzako obra bat eskatu ziguten, baina malgutasun osoa geneukan sorkuntzarako. Zirkua eta musika uztartzen dituen ikuskizun hori proposatu genien, baina ez da ohiko zirkua izango, mamia berezia da. Gaur egun dugun bizimodu estresagarri eta bizia dauka oinarrian, eta egoera horri buelta emango zaio obran zehar. Bidaia emozional bat planteatu genuen hasieratik, ikuslea emanaldira iristen denetik bere eguneko karga guztiekin, obrak gozatzea iristen den arte. Clown bat da protagonista, ez dago hitzik, baina argiak ere eginkizun garraztitsua izango du, eta horregatik dauka obrak *Lumina* izena. Argiek argiztatuko dituzte uneak, eta horrela sortuko ditugu oroitzapenak. Obrako kideek argi-bolak oparitutako dizkiote clownari, eta argi-bolak izango dira mailetan gordeko dituen oroitzapenak. Clown baten bidaia emozionala da, egoera txar batetik on batera. **Obrako protagonista Aitor Guisasola da, Elgoibarren ezaguna eta zure laguna.**

Aspalditik neukan Aitorrekin lan egiteko gogoia, eta argi ikusi genuen hark izan behar zuela clown protagonista. Haren bitartez lotu genituen Berdinki zirku konpainiako Koldo Arakistain eta Irati Gonzalez. Haiek zirkuan esperientzia handia daukate; bereziki, binakako akrobazietan. Abesteko Nerea Bilbao fitxatu genuen. Santurtziko neska gazte bat da, eta sekulako ahotsa dauka. Musika une oro zuzenean jotzen dugu, eta egokitzen gara musikariak



Aitor Guisasola, Iraide Sarria eta Elur Arrieta. E.A.

aktoreetara eta alderantziz. Konexio oso ona lortu dugu. Une batean, abeslariak clownari abesten dio zuzenean, eta oso hunkigarria da.

Elgoibarren antzezteak zer eragiten ditu?

Berezia izango da. Ikuskizuna kalean egingo dugun lehen aldia izango da, eta mimo handiz prestatu dugu guztia. Estetikan arreta berezia jarri dugu, eta eszenatokia tentu handiz prestatuko dugu. Eliza aurrea zirkua izango da, eta hango elementu guztiek izango dute eginkizun bereziren bat obran. Eskerrak eman nahi dizkiot Udaleko Kultura Sailari, gudan jarri duen konfiantzagatik. Badakigu beste herri batzuetako programatzailerak ere etorriko direla, eta espero dugu aurrerantzean aukera izatea ikuskizun hori errepikatzeke. Guk sortutako obra da, eta ez dauka zerikusirik obra baten kolaboratzeak edo norberaren lana aurkezteak. Urte asko dira musikatik bizitzera erabaki genuela, eta aurtengoa hamar urte beteko dira gure obrak sortzen hasi ginenetik. Momentu berezia bizitzen ari gara.

"Ikuskizuna kalean egingo dugun lehen aldia izango da; mimo handiz prestatu dugu"

NIRE USTEZ

Zeroak eta hutsak: "Eman diote zero euskarari"

IRENE MACAZAGA
HIZKUNTZALARIA ETA
DOKTOREGO AURREKO
IKERTZAILEA

Urtero, ekaineko lehenengo astean, Unibertsitateko Sarrera Proba izaten dugu hizpide. Dela egunkarietan dela telebistan, azterketa horiek beti sortzen dute zeresanen bat. Gehienetan bi astera ahazten badugu ere, xelebrekeriaren bat edo beste gertatu ohi da.

Oraindik gogoan dut duela zortzi urte, 2018an, nik neuk *selektibitatea* egin nuenean, Espainiako Historiako azterketa azken momentuan – azterketa baino ordu erdi lehenago– aldatu eta inprimatu

behar izan zutela. Aurreko egunean sare sozialetan azterketan agertuko zen gaia zabaldu zen. Oker ez banago, urte berean Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II irakasgaiak ere zurrumbiloi sortu zuen: azterketa ez omen zetorren bat urtean zehar landu zutenarekin.

Aurtengo iskanbilak, ordea, badu anekdotikoaz harago doan alderdi bat. Dagoeneko denek

"Euskal hezkuntza sistema publikoari sekulako zaplaztekoa eman diote"

jakingo duzue zertaz ari naizen. A ereduko zenbait ikastetxetako ikasle batzuek zero atera zuten Euskara eta Literatura II irakasgaietan. Azkenean berrikusketa eskatu badute ere, epaitegietara jo zuten aurrena, eta epaileak ebatsi du ikasle horien notak ez direla kontuan hartu behar nota orokorra kalkulatzeko orduan.

Euskal hezkuntza sistema publikoari sekulako zaplaztekoa eman diote. Eman diote *zero* euskarari, eman diote *zero* erdi- eta goi-mailako hezkuntzan lan egiten duten profesionalei, eta eman diote *zero* euskara babestuko duen eta hizkuntza-politikak errespetatuko dituen justizia-sistemari.

NIRE USTEZ

Maala, atzeko aldetik

JOSE RAMON CABRERA
ARGAZKILARIA



Azken egun hodeitsu hauek, beroaldiaren erdian, gau freskoetarako bidea prestatzen dutela diruditen ilunabarrak oparitu dizkigute. Maalaren atzekoa da argazki hori: euritik babesten gaituen eta Elgoibarko herriarren bilgune den lekua. Batzuetan, gelditu eta ingurua mirestea besterik ez dugu behar.



SEMAFOROA

Ibaian bainatzea libre al da?

Beroaldi egunetan hainbat ume bainua hartzen ibili ziren Deba ibaian. Badakigu garai batean oso ohikoa zela hori, baina gaur egun bitxia da, eta jaietako ekintza bereziren batean ez bada, ez da jenderik ikusten ibaian. Gertakari horren harira, galdera hau egin du herritar batek: "Errekan bainua hartzea edota Udaltzaingoaren atzeko eskaileretatik ibaira jaistea libre al da? Eta uraren kalitatea nolakoa da ibaian? Azalerako edo osasunerako arriskurik ba al dauka errekan bainua hartzeak? Elgoibarko Udalera jo du BARRENAk erantzun bila, eta azalpen hau eman du Ion Zubiaurre Hirigintzako zinegotziak: "Deba ibaia, Elgoibar herritik pasatzen den zatia, ez dago ofizialki Euskal Autonomia Erkidegoak baimendutako bainu-eremuen artean jasota; beraz, ez dago uraren kalitatearen jarraipen ofizialik, ezta osasun-bermerik ere. Uraren kalitatea eta osasun-zaintza zehaztutako bainu-eremu horietan soilik bermatzen dira. Bainatzea ez dago espresuki galarazita hemen, baina ez dago osasun-bermerik eta ez da uraren kalitatearen jarraipen ofizialik egiten. Horregatik, arrisku handiagoa dago osasun-arazoak izateko edo ezustekoak gertatzeko. Beraz, ez da gomendagarria bertan bainua hartzea".

Kirol campusekoei eskaera

"Kirol campuseko arduradunei iradokizun bat egin nahi nieke: ume txikienekin aitona-amonak ibiltzen gara uda sasoi honetan, eta umeak Mintxetara eramanez eta han jasotzea konplikatu egiten zaigu; are gehiago, bi biloba baditugu eta beste ordu berean beste tokiren batera eramanez behar badugu. Askok erosoagoa litzateke kiroldegia izatea kirol campuseko txikienentzako topalekua. Eskerrik asko".



Gaztienak taldekoak, kuadrillakoekin. AINHOA ANDONEGI

LaRoita erronkan, Gaztienak nagusi

Hamabi lagunek hartu dute parte aurtengo LaRoita erronkan, hiruko lau talde mistotan banatuta; Mutrikuko portuan hasi zuten eguna, igerian, eta Karakaten amaitu zuten

Ainhoa Andonegi
Gaztienak taldeak irabazi du aurtengo LaRoita erronka, 1.14.59ko denborarekin. Jaujar taldea izan da bigarrena (1.17.12), hirugarrena Wonga izan da (1:20:00) eta laugarren postuan Raketxe taldea geratu da (1:20:38). Inoiz baino lehiakide gehiago izan ditu LaRoita erronkaren aurtengo edizioak, baina probaren izaera urteroko berbera izan da: Mutrikun hasi zuten eguna, igerian; horren ondoren, bizikletaz etorri ziren Mutrikutik Elgoibarreraino, Kalbario gai-

netik pasatuta; eta, azkenik, Kalegoen plazatik korrika igo ziren Karakate puntara. Hain zuzen ere, txandaka egin zuten proba, eta taldeko partaide bakoitzak kirol diziplina bat osatu zuten.

Lehia bizia
Igerian Jaujar taldeko Garazi Catalan izan zen azkarrena, baina bizikletan Beristain anaiak izan ziren Mutrikutik Elgoibar-ko Kalegoen plazara iristen azkarrenak. Jaujar taldeko Eneko Barruetaña iritsi zen hiruga-

rren lekuan, eta Raketxe taldekoak izan ziren Karakaterako bidea hartzen azkenak. Asfalto amaitu zen unetik, aurrea hartu zuen azken igoeran Gaztienak taldeko Aimar Elizburuk, eta bi minutu pasako aldea atera zion helmugan bigarren sailkatuari. Armendia zihoan bigarren, baina Melgosak aurreratu egin zuen, eta bigarrena izan zen Karakaten. Raketxe taldeko Ander Aranbarri izan zen azkena. Lehia polita, parekatua eta bizia izan zen.

Kirol probaren ostean, festa hasi zuten. Maalan egin zuten

sari banaketa, eta Mauxitxa txarangaren erritmora joan ziren bazkaritara. 500 bat gazte batu ziren Sigmako aparkalekuan, eta arratsaldean, Patxangoi elektrotxarangarekin itzuli ziren herrigunera, dantzan eta kantuan. Gauean, gaztetxean jarraitu zuen festa, goizaldeko orduak arte.

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute, bai probari eta baita egun osoko jaia-ri dagokionez, eta dagoeneko hasiak dira hurrengo urterako ideiak pentsatzen.



Aimar Elizburu. ANDER SORALUZE



Gorka Melgosa. A.S.



Ander Armendia. A.S.



500 bat lagun batu ziren bazkaritarako, Sigman. LAROITA



Ander Aranbarri. A.S.

Xabier Lujua eta Jesus Estrada izan dira azkarrenak San Miguel Rallysprintean



EUSKAL AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA



EUSKAL AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA

Elgoibar eta Etxebarri arteko errepidean jokatu zuten, zapatuan, XVIII. San Miguel Rallysprinta. Sailkapen nagusian GT taldeko Xabier Lujua pilotua eta Jesus Estrada kopilotua gailendu ziren, Alpine A110 auto ikusgarriarekin. 20.34,80ko denboran osatu zituzten 10,69 kilometroko ibilbidean egin beharreko

hiru txandak. Euskadiko Rallysprint Txapelketako sailkapeneko behin-behineko lider Aitzol Apalantza errezildarra eta Aitzol Lejardi (Hyundai i2N Rally2) sailkatu ziren bigarren postuan, 20.41,20 eginda. Emaiza osoak eta irudiak barrena.eus-en daude.

Sentsazio gazi-gozoarekin itzuli dira Iraolagoitia eta Garaizabal Melillatik, Espainiako Txapelketatik

Asier Orbea ELGOIBAR

Espainiako Txapelketa jokatu zuten uztailaren 3an, Melillan (Espainia), Besa-Geminis taldeko Enaitz Iraolagoitia (Mendaro, 2010) eta Danel Garaizabal txirrindulari kadeteek (Elgoibar, 2010), euskal selekzioarekin. Zirkuitu lehorra izan zuten oso, hondar-lurrezkoa, eta, ondorioz, oso irristakorra, baina, hala ere,

emaitza ona lortu zuten. Izan ere, taldeka laugarren egin zuen Euskadik, hirugarren sailkatuaren puntu kopuru bera lortuta.

Sentsazio gazi-gozoa

Sentsazio gazi-gozoarekin dira bueltan Besa-Geminis taldeko bi txirrindulari kadeteak. Gozoa, Estatuko txirrindulari onenekin lehiatzeko aukera izan dutelako

euskal selekzioarekin eta ondo egokitu direlako ezohiko zirkuitu batera, baina gazia, eman zezaketen guztia eman ezin izan dutelako. Hala ere, Euskadik bi txirrindulari sartu zituen lehenengo hamarren artean: Alain Perez Rincon eta Daniel Garcia Muñoz. Enaitz Iraolagoitia, berriz, hamabosgarren izan zen sailkapen nagusian, lasterketa ona eginda.



Enaitz Iraolagoitia, Euskadiko maillotarekin, Melillan. LAGATAKOA

Euskal selekzioaren ofizialtasuna eskatu dute



SOARTE

Gizonezkoen Munduko Futbol Txapelketa jokatzeko ari den honetan, euskal selekzioaren ofizialtasuna eskatzeko dei egin dute Gu Ere Bai herri mugimenduak eta Gure Es-

kuk, eta Elgoibarren ere elkartu zen jende multzo bat, joan zen zapatuan, Euskal Herriak bertako selekzioa behar lukeela aldarrikatzeko. Kirola Euskal Herriak nazio

gisa dituen eskubideen aldeko tresna baliagarritzat ikusten dute ekimenaren deitzaileek, eta aldarri horrekin bat egin zuten argazkiko herritarrek.

Paula Calvo, Euskal Herriko txapeladun

Denboraldi aparta egiten ari da Paula Calvo Villalobos (Elgoibar, 2009). Adinez junior mailako igerilaria den arren, senior mailako lehiakideei irabazi die Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketetan. Urrezko lau domina lortu zituen Gipuzkoakoan, eta beste horrenbeste eskuratu ditu joan den asteburuan Gasteizen jokatu zuten Euskal Herrikoan. Calvo azkarrena izan zen estilo libreko 100 metroko lasterketan eta bizkar estiloko 50 metrokoan zein 200 metrokoan. Horiek, senior mailan. Laugarren urrezko domina tximeleta estiloko 50 metroko proban eskuratu zuen, junior mailan.



Paula Calvo, podiumean. LAGATAKOA



Carlos Gomez eta Amets Isasti entrenatzaile elgoibartarrak. ASIER ORBEA

"Entrenatzaile izateko ametsari segika goaz Jaenera"

AMETS INSAUSTI ETA CARLOS GOMEZ REALEB FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEAK

Asier Orbea ELGOIBAR
Ubedako (Jaen, Espainia) C.D. Realeb futbol taldeak fitxatu zaituzte taldea entrenatzeko, ezta?

Amets Insausti: Bai. Andaluziako Bigarren Mailan lehiatzen da Realeb taldea. Hemengo Preferente Mailaren parekoa litza-teke, Haundi ari dena baino kategoria bat beherago. Iaz sortu zuten kluba, eta futbol akademia moduan funtzionatzen du. Argentinakoa da klubeko presidentea, Pablo Nilo, eta hark jokalaria gazteak ekartzen ditu Argentinatik. Han lauzpabost lagun dituzte, talentuen bilatzaile lanetan. Hango futboleko aurrerabiderik gabe geratu diren arren, futbolari izatea desio duten jokalaria bilatzen dituzte, eta beste aukera bat ematen diete Espainiako futboleko. Hemen maila emanez gero, talde handiagoen atea irekitzen zaizkie. Hori du negozio Realebek, jokalaria garatzeko egiten du inbertsioa.

Hortaz, entrenatzaile lanetarako argentinaz auzentua landu beharko duzue?

Carlos Gomez: Hau da hau.... Andaluziako auzentura ohitu beharko genuela uste genuen, eta argentinaz hitz egiten itzuliko gara. Bost egun eman ditugu Ubedan, taldea ezagutzen, eta, auzentuz gainera, cumbia doinuetara ere ohitu beharra izango dugula konturatu ginen. Momentuz, taldean dauden hamabi jokalarietatik hamaika

dira argentinarrak, eta Ekua-dorkoa da bestea.

Nola iritsi zaizue aukera hau?

A.I.: Futboleko metodologiako zuzendari izateko ikastaro bat egin dut. Jokatzeko eredu edo estilo bat kirol talde batera nola eraman behar den irakatsi ziguten; hau da, estilo hori nola ezarri behar den, harrobitik hasita. Nire curriculumera erantsi eta gero, hainbat lan-eskaintza jaso nituen, bai Madril-dik, Valdebeasako eta Getafeko taldeetatik, eta baita Ubedako hau ere. Honexek konbentzitzen gintuen gehien, etxea, jatekoa eta soldatatzeko eskainta zigutelako. Biok UEFA B tituludun entrenatzaileak izatea ere baloratu zuten, Europako eta Espainiako talde federatuak entrenatzeko behar den oinarriko maila profesionalerako bat baita, hirugarren garrantzitsua.

Konfort-eremutik irten eta abentura berri hau hastea erabaki duzue.

C.G.: Hemen egin beharrekoak eginda geneuzkela sentitzen genuen; ez atzera ez aurrera, trabatuta moduan geunden. Nik hamalau urte egin ditut CD Elgoibarren, eta zortzi Ametsek.

"Jokalaria eta entrenatzaileok lau pisuko etxebizitza batean biziko gara"

Bide berriak urratzeko unea zela erabaki dugu; entrenatzaile izateko ametsari segika goaz Jaenera.

Zein da Realeb klubak jarri dizuen helburua?

C.G.: Mailaz igotzea, argi eta garbi.

A.I.: Bai, halaxe da, eta gogotsu onartu dugu erronka, anbizioak gara eta. Bitxia da: Ubedan beste futbol talde bat dago, maila bat gorago, eta klubeko arduradunek hura baino gorago egon nahi dute, kosta ahala kosta, ezinikusi handia baitago bi taldeen artean, futbol zelaia partekatu behar dutelako, besteak beste.

Esan duzue Realebek akademia moduan funtzionatzen duela.

C.G.: Jokalaria eta entrenatzaileok lau bat pisuko etxebizitza batean biziko gara, eta elkarrekin egingo ditugu jatorduak ere, zehaztutako orduetan. Profesionalen bizimodua egingo dute jokalariek, ez baitute beste lanik egiten, erabat daude futboleko zentratuta. Egunean bi entrenamendu egingo ditugu. Araudia ere bete behar dute; astegunetan 23:00etarako etxeratzea, adibidez, eta 01:30erako asteburuetan. Eta zorrotz betetzen dituzte, ez baitute ez edaten, ez erretzen, ez parrandarik egiten. Familia laga, 10.000 kilometroko distantziara, eta futbolari izateko ametsa egia bihurtzeko intentzioarekin etorri dira honaino.

EXPRESS ESKAINTZAK!

PHILIPS HC3525/15
ILEA MOZTEKO MAKINA

29,90 €

- 45 minutuko autonomia
- Hertz autoafilagarriak
- Dura Power teknologia
- Diseinu ergonomikoa
- 13 Luzera desberdin mozteko aukera

MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487
blire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

aldaz
hartz klinikak · clinicas dentales RPS 128/24

Hortzetako pasta egokia erabiltzen ari al zara?

Fluorra funtsezkoa da txantxarra prebenitzeko eta hortzak zaintzeko.

Sektoreko profesionalak gomendatutako ikerketa zientifikoek bermatzen dute fluoraren eraginkortasuna. Hortzetako pasta gehienek fluorra dute; ezinbesteko minerala da gure hortzak zaintzeko eta txantxarra prebenitzeko.

Hortzetako pasta-hodi guztiek dute zehaztuta zein fluor-kontzentrazio daramaten, hodiaren atzeko partean; mila eta mila eta bostehun arteko proportzioa da egokia.

Fluorraren eraginkortasuna milaka ikerketa zientifikok babesten dute, eta gure arloko profesional guztiek gomendatzen dute. Dendifrikoez duten fluor-kontzentrazio txikiak erabat seguruak dira; ez dago zertan arduratu.

Gogoratu! Hortzetako pasta ondo aukeratzea garrantzitsua da irribarre osasuntsua eta polita lortzeko!



San Bartolome, 22 - Elgoibar
lyd@dentalaldaz.com 943 366 377

"Garbi daukat taldekideen babesik gabe ezin izango nuela zorakeria hau gainditu"

IRAITZ FERREIRA TRIATLETA

Madrilgo Ultramad 515 iraupen luzeko triatloia irabazi du Iraitz Ferreirak (Mendaro, 1996), nazioarteko triatloirik luze eta gogorrenetako bat

Ainara Argoitia MENDARO

Madrilgo Ultramad 515 iraupen luzeko triatloia irabazi zuen joan den asteburuan Iraitz Ferreirak, 40 gradutik gorako bero saparekin. Hiru egunean 515 kilometro osatu zituen: 10 kilometro igerian, 421 kilometro bizikletaz eta 84 kilometro korrika. Lau laguntzaileko taldea izan zuen ondoan, une oro, balentria lortzeko: Josune Manteca bikotekidea, Alain Zulaika kuadrillako laguna, Mikel Lasa lankidea eta Jon Iñaki Ferreira aita.

Handia egin duzue gero! Zer-nola-ko esperientzia izan da?

Oso gogorra, probaren beraren ezaugarri gogorrei egun hauetan egin digun bero handia gehitu behar zaielako, baina oso esperientzia ona izan da. Oso giro ona izan dugu parte-hartzaile guztion artean, beste lasterketa batzuetan sortzen ez den modukoa. Hotelean otordu guztiak elkarrekin egin ditugu, eta proban zehar izugarri lagundu dide laguntzaile lanak egitera joan diren guztiek, bai besteenek eta, zer esanik ez, nireek. Garbi daukat taldekideen laguntzarik gabe ezin izango nuela zorakeria

hau gainditu. Eskerrak eman nahi dizkiot, era berean, Iñaki Goenaga prestatzaileari, hau prestatzeko emandako laguntza eta aholku guztiengatik.

Hamar kilometro igerian eta 145 bizikletaz. Hori lehenengo eguneko lana. Nola joan zitzaizun?

Igerian moldatzen naiz ondoen, hein handi batean azkeneko bi urtean asko hobetu dudalako Seber Uriberekin -Elgoibarko kiroldegiko igeriketa irakaslea-. Erritmo erosoan aritu nintzen, *balarik* galdu gabe, bizikletan irten behar nuelako gero eta oraindik bi egun luze gelditzen zitzaizkidalako aurretik. Fresko irten nintzen uretatik, eta alde dezentekoa atera nien besteei. Abantaila handia izan zen hori, gero bizikletan lasai irteteko. Biharamuneko etapari beldur handia nion, eta indarrak gordetzen aritu nintzen proba osoan zehar, baina bero handia egiten zuen, 40 gradu inguru bai, eta nahi baino estuago ibili ginen denok ere. Eskerrak lagunak hor nituen hamar minutuan behin ura eman eta botatzen. Eta bai, lehenengo amaitu nuen, eta gustura.

Bigarren egunean 280 kilometro osatu zenituen bizikletaz, baina, itxuraz, gorriak ikusita. Ala?

Bai. Uste dut bezperan ez nituela ipurtaldeak ondo lehortsu uretatik irten nintzenean, eta garesti ordaindu nuen bigarren etapan. Sekulako profil gogorreko ibilbidea geneukan, 4.400 metro inguruko desnibelarekin, eta nik aulkian jarri ezinda egin nituen lehenengo 130 kilometroak, ipurdiko minez. Compeed-ez estali nuen atzea, beste kulot bat moztu eta haren babesgarria jarri behar izan nuen neramanaren gainetik, eta minaren kontrako pilula bat hartu nuen. Lagundu egin zidan horrek, eta erosoago egin nuen handik aurrerako bidea, baina sufrituta. Banekien azkeneko 80 kilometroak lau-antzean zirela, eta horri eutsi nion. Azkeneko mendatean, gainera, lehenengo zihoana aurreratu nuen, eta horrek sekulako indarra eman zidan. Hark, berriz, goitik behera egin zuen psikologikoki. Berez, gehienez, hamabi orduan amaitu behar genuen, baina, beroagatik, beste ordubete gehiago eman ziguten. Azkenean, 11 ordu eta 59



Josune Manteca, Alain Zulaika, Iraitz Ferreira eta Mikel Lasa. LAGATAKOA

minutuan amaitu nuen, lehenengo postuan, eta pozik.

Eta maratoni bi bukatzeko, 84 kilometro. Bizirik amaitzea ere ez da gutxi!

Deneko minez amaitu nuen, baina pozik. Azkena irten nintzen lasterka, eta lasai hartu nuen proba. Madril erdialdean ibili ginen zirkuitu bati itzulika. Goizean goiz, 27 bat gradutan, itxuran, baina ordu eta erdiren buruan, 37 gradutik gora berotu zuen. Baina 42 bat kilometro eginda, indartsu sentitzen nintzen, eta esango nuke disfrutatua ere egin nuela. Musika entzunez eta kantuan aritu nintzen korrika, jendearen animo artean, eta 50. kilometroa betetzerako

lehenengo jarri nintzen. Handik aurrera sufritu egin genuen. Hogeit bat kilometro falta zirela, gainera, ohartarazi gintuzten zirkuituari eman beharreko bost itzuliak emanda ez genituela 84 kilometro osatzen, eta, beraz, helmugatik pasatu ondoren beste pare bat egin behar genituela korrika. Sekulako mina egin zidan horrek psikologikoki, broma gutxitarako nengoelako, gorputz osoa minduta, eta orain, barrez diotsut, baina momentuan oso gogorra egin zitzaigun. Eskerrak lagunei. Alainez 51 kilometro egin zituen bizikletan nire ondoan, Mikelek 12 bat kilometro egin zituen nirekin korrika eta beste batzuk bizikletaz; Josune, berriz, han izan nuen behar nuen guztian ura, izotza eta jatekoa ematen.

Errepikatzen gogorik gelditu al zaizu?

Ez, ez, ezta inolaz ere. Bat, eta nahikoa. Tontakeriak, justukoak; hau oso gogorra da. Behin egiteko, ondo, baina gehiago ez.

"Errepikatu? Ez, ez.

Bat eta nahikoa.

Tontakeriak,

justukoak!

Hau oso gogorra da"

Unai Ayala, Salamancara

2. RFEF Mailako Salamanca taldeak fitxatu du Unai Ayala Cornejo (Mendaro, 2004) 2027ko ekainera arte. SD Eibarko bigarren taldeko atezaina izan da oraintsu arte, eta, aurrerantzean, Iker Muniainek zuzendutako taldean arituko da. Zapaturako, agurreko jaia antolatu zioten kuadrillakoek. Goizean egin zuten talde-argazkia da ondokoa.



LAGATAKOA

VITAL sortea	ATLANTIS sortea
Teknosalet koltsa (mangelakidun koltsa)	Bonell koltsa (mangelakidun koltsa)
Regio eralsgarria 725€tik aurrera	Regio eralsgarria 625€tik aurrera
Qumari lapratua 495€tik aurrera	Qumari lapratua 395€tik aurrera
Master eralsgarria 795€tik aurrera	Master eralsgarria 685€tik aurrera

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textilagunak.com

LAGUNAK
solobeneria textil bager

Alzheimerra ikertzeko izango da garagardo azoka solidarioan batuko duten dirua

Frontoian egokituko dute jantokia, eta bazkari eta afariak zerbitzatuko dituzte bertan

Ainara Argoitia MENDARO

Atzo zabaldu zuten Mendaroko garagardo azoka solidarioa, eta gaurkoa, bigarren eguna, Enpresetako en Eguna dute izendatua. Bosgarren urtez egingo dute azoka, eta antolatzaileek jakinarazi dute aurten batuko duten dirua alzheimerraren ikerketara bideratuko dutela. Afagiri emango diote batzen duten dirua, Gipuzkoan alzheimerra edo beste demen-tziaren bat duten gaixoen eta haien senideen eta lagunen elkarteari.



lazko Enpresetako en Eguneko bazkaria. AINARA ARGOITIA

Bigarren eguna gaur

Haurrentzako mahai-jolasak eta Leire Lazkano mendaroarrak sortutako *Galdutako harrien bila* jolasa zituzten iragarrita atzo arratsalderako, bai eta Afagiko profesionalen hitzaldia ere. Alzheimerraren diagnosti-

koan egindako aurrerapenez, gaixoei eta haien etxekoei egunerokoan sortzen zaizkien zailtasunez eta abarrez hitz egitekoa zuten Afagikoek atzo, Uztargi tabernan. Ohikoa izan ohi da hori, onuradun direnek hastea

garagardo azoka solidarioa, eta lehenengo eguneko afariari Ongintza Afaria deitu ohi diote. Hain justu, atzoko afarian zieten ematekoa iazko azokan bildutako dirua Aspanogi elkartekoei, minbizia duten adin-

gaberen familien Gipuzkoako elkartekoei.

Gaur, barikua, Enpresetako en Eguna ospatuko dute. 13:00etan hasiko dira bazkariak zerbitzatzen frontoian.

Inguruko enpresa askotako enpor aurreko bazkaria egiteko baliatu ohi dute Mendaroko ekimen solidario hori, eta gaur ere jende asko espero dute herrian. Bazkaritan, bermut dastaketa eta jolasak egingo dituzte, eta askotariko produktuak zozkatuko dituztela aurreratu dute antolatzaileek. 18:00etatik 20:30era, berriz, Esther disko-jartzailea ariko da Uztargi tabernako terrazan musika jartzen. Gauean, berriz, 20:30ean zabalduko dute frontoiko jantokia. Han bertan ere hartu ahal izango da afaltzeko lekua, baina antolatzaileek, ahal dela, lekua gordetzeko eskatu dute. Horretarako, honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 03 01 50.

Zapatua, Herriaren Eguna

Iaz bezala, Cantabria Chapter motorzaleen elkartekoei eta Mesa 7 elkartekoei elkarlanean antolatu dute biharko

egitaraua. 09:00etan batuko dira motorzaleak Herriko Enparantzian, eta eguneko lehen mokadua egingo dute frontoian, moto guztiak plazan erakusgai jarrita. Aurreratu dutenez, herriko artisauak ere aterako dituzte beren produktuak kalera. Frontoi inguruan jarriko dituzte erakusmahaiak, eskuz egindako produktuak erakutsi nahiz saltzeko. 11:00etatik 13:00ak arte izango dira han, eta 12:00etan abiatuko dira motorzale guztiak plazatik, burrunba hots batean; 14:30ean, frontoira bazkaltzera joango dira. Izan ere, bihar ere izango da frontoian bazkaldu nahiz afaltzeko aukera. Garagardo azoketako ohiko menua zerbitzatuko dute.

Domekan itxiko dute azoka. 11:00etatik 13:00etara, artisauen azoka jarriko dute Goñatin, eta 13:00etan hasiko dira bazkariak zerbitzatzen, eta 17:00etatik 19:00etara, berriz, Leire Lazkanok ezkutatu eta herriko hurrek topatutako harriak jarriko dituzte ikusgai frontoian. Era berean, St. Gerons txokolategi-koek emandako txokolate-jana izango da bertan, leku eta ordu-tegi berean.

Bea Asurmendik jazz kontzertua emango du uztailaren 16an San Agustinen, taldearekin

'Asteartea' lana aurkeztuko du, jazz garaikidea eta iberiar folka batzen dituen

A.A. MENDARO

Bea Asurmendik, Londresen bizi den abeslari eta konpositore euskaldunak, *Asteartea* izeneko lana aurkeztuko du Mendaron uztailaren 16an, eguna. Jazz garaikidea, iberiar folka eta kantautore generoaren kutsuak uztartzen ditu diskoak, eta dolua, barkamena, maitasun propioa, emakumeen ahalduntzea eta osasun mentalaren kontzientzia jorratzen ditu, besteak beste. Mesa 7 elkarteak antolatu du kontzertua, Uztargi tabernakoen, Gararock taldekoen eta Udalaren laguntzarekin. San Agustinen izango da emanaldia, 21:30ean hasita, eta oholtzan lau musikari handi lagun hartuta ariko da Asurmendi: Giovanni Cresseri (baxua), Gianluca Corona (gitarra), Milena Granci (pianoa) eta Filippo Galli (bateria). Sarrerak Uztargi tabernan



Bea Asurmendi. SAREA

eros daitezke aurrez, 15 euroan, eta, bestela, egunean bertan, San Agustinen.

Gaiak eta eragina

Asteartero emakumeen zirkulu batean izandako esperientzia

eraldatzailan oinarritu ditu diskoko kantuak Asurmendik. Hark dioenez, bilkura horietan, jainkosen mitologiaren bitartez, emozioei buruz hausnartu eta emakumeek egunerokoan bizi dituzten esperientziak partekatzen zituzten. Diskoa, berriz, Londresko Fish Factory eta The Cowshed estudioetan grabatu zuen; nagusiki, zuzenean.

Eragin musikalez, berriz, dio jazz, folka eta kantautore generoa uztartzen dituzten artistengandik hartzen duela inspirazioa; hunkitzeko gaitasuna, inprobisazioa eta kontakizun poetikoa ardatz dituztenengan-dik, zehazki. Hauek ditu erreferente nagusien artean: Silvia Perez Cruz, Norma Winstone, Josefine Cronholm, Cyrille Aimée eta irakasle izandako Brigitte Beraha.

Eneko Gonzalez saritu dute, 3D animazioan egindako lanengatik

A.A.

3D Animazioa eta Ikus-Entzuzkoak goi-mailako gradua egiten ari da Eneko Gonzalez Escobar (Mendaro, 2007) Andoaingo ESCIVI zinema eta bideo eskolan, eta ikastetxeak urtero banatu ohi dituen sarrietako bat jaso berri du. Lehenengo urteko ikaslea da Gonzalez, baina trebea da animazioaren kontu horretan, eskolan urte osoan egindako lanaren aitortza jaso du eta.

Bi lanengatik nabarmendu dute: hark sortutako animazio bategatik, zeinean katu bat ageri den baxua jotzen; eta hainbat ziklotako ikasleen artean sortutako film labur bategatik. Film laburraren gai nagusia adimen artifiziala da; izan ere, adimen artifizialak poste bati lotuta dauka pertsona bat, preso, eta, zehazki, adimen artifizial horren aurpegia sortu du hark, 3D animazioa erabilita. Bistan da gustuko duela oso mundu hori,

eta aitortu du etorkizunean horretan jardun nahiko lukeela. Momentuan, sare sozialetan dituen kontuetara igotzen ditu egindako lanak, eta horretan jarri nahi luke indar handiagoa, aspaldian ikaskeketak direla-eta "abandonatu xamar" izan di-tuelako. Dena den, gustatuko litzaioke film laburren bat sortzea teknika hori erabilita.



Eneko Gonzalez ikaslea. LAGATAKOA

Babesgune klimatikoak eta beroaldien kontrako neurri berriak izango ditu Ermuak

Aste honetan erregistratu diren moduko tenperatura altuei aurre egiteko plana prestatzen ari dela jakinarazi du Udalak, beroaldiei "aurrea hartu" eta herritarrak, udal-langileak zein kolektibo zaurgarriak babesteko helburuarekin

Ander Gomez

Ekainaren 21etik 24ra bitartean izandako beroaldian eta termometroak 37 gradu markatzera ailegatu diren aste honetan, herriguneko kaleak hutsik egon dira egunaren erdiko orduetan. Tenperatura freskoa, itzala edo ura eskaintzen duten txoko bila ibili dira herritarrak; kalean halabeharrez egon behar izan duten langileek, berriz, ahal bezala igaro dituzte egunok. Egoera horren harira, prebentzio-neurriak eta bero-boladen kasuan jarduteko protokoloak lantzen hasi da Ermuko Udala.

Planaren berri joan den ekainaren 30eko osoko bilkuran eman zuen Beatriz Gamiz alkateak, galdera-eskaeren txandan Paul Yarza EH Bilduko bozeramaileak gaia mahaigaineratu ostean.

Oposizioaren kezka

Tenperatura igoeretara egokitzeko aurreikusitako neurrien eta babesgune klimatikoen inguruan galdetu zuen EH Bilduk. Tokiko Energia eta Klima Plana iazko ekainean aurkeztu zela



Zubiaurre kalea, hutsik. A. GOMEZ

adierazi zuen, eta, aldi berean, 2026ko udal aurrekontuan ingurumeneko partida murriztu izana kritikatu zuen: "10.000 euro gutxiago bideratu dira aurreko urtearekin alderatuta; aurrekontu osoaren %1,30 soilik bideratzen da arlo horretara, oraindik ez dugun teknikariaren kostua barne". Era berean, maizteko osoko bilkuran mahaigaineratutako kezkak gogorarazi zituen, hala nola bero-boladen ondorioen ingurukoak eta herriguneko zuhaiztiaren diagnostikoaren atzerapenengatik sortutakoak.

EH Bilduren ustetan, "plan horien garapena ez litzateke atzeratu behar Ingurumen teknikaria falta delako; pertsona guztiek ez baitute baliabiderik etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko, eta adineko askok ezin dute uda Ermutik kanpo igaro". Hori dela eta, Udal Gobernuari galdetu zion ea identifikatuta ote zituen babesgune modura erabil zitezkeen espazio publikoak: "Esaterako, liburutegia, Lobiano jauregia, Merkatu plaza, kiroldegia... eta itzala, eserlekuak eta ura eskaintzen dituzten bestelako guneak". Helburua "edozein herritarrek

etxetik gertu babesteko eta sozializatzeko txoko bat izatea" dela azaldu zuen Yarzak.

Udal Gobernuaren erantzuna

Alkateak zehaztu zuen gaia "Energia eta Klima Planetik haratago" doala, eta beroari aurre egiteko "plan integral eta zabalagoa" behar dela. Azaldu zuenez, egoera honek ez dio Ermuari bakarrik eragin, penintsulako iparraldeko gainerako administrazio eta udalei ere bai: "Hegoaldean badituzte horrelako protokoloak; gu, berriz, azkenaldiko bero-bolada hauek ezustean harrapatu gaituzte". Hala ere, dagoeneko plan baten zirriborroa prestatuta dutela jakinarazi zuen, "oraindik ere Udaleko sailekin landu eta kontrastatu beharrekoa".

Azken asteotako alerta egunetan hartutako neurriak ere aipatu zituen Gamizek. Udalar dagokionez, ezinbestekoak ez ziren kasuetan, langileek egunaren erdiko orduetan kanpoko esku-hartzeak saihesteko agindua eman zela azaldu zuen; baita udaletxe-ko hainbat gelatan haizegailuak jarri zirela, "laneko eta herritarrentzako arreta-guneetako baldintza termikoak hobetzeko".

Lantzen diharduten planak barneko zein kanpoko ikuspegia duela azaldu zuen: "Udal-langileak, herritarrak eta, bereziki, pertsona zaurgarriak babestu nahi dira". Adierazi zuen Ermuak "inprobisatu gabeko tresna egonkorra" behar duela; krisi-egoerei aurrea hartzea, Udaleko sailak koordinatzea, espazio freskoak identifikatzea, prebentziozko komunikazioa indartzea eta tenperaturek osasunerako arriskua eragin dezaketen egoeretan berehalako

laguntza neurriak aktibatzea ahalbidetuko duena.

Bukatzeko, herrigunearan asper-tsoreak jartzeko aukera aztertu dutela azaldu zuen, EAEko hainbat udalerritan jarri direla ikusita. Hala ere, "egun batetik bestera" ezin direla martxan jarri ohartarazi zuen, legionellaren kontrako neurriak eta bestelako prozedurak tarteko.

Planaren inguruko datu gehiago

Gaur zortzi, Tenperatura Altuen Kontrako Planaren inguruko xehetasun gehiago partekatu zituen Udalak. Zirriborroak arrisku-mailaren arabera protokoloak aurreikusten ditu, udako ohiko prebentzio-fasetik hasi eta muturreko beroaldi kasuetako abisu-, alerta- eta larrialdi-mailetaraino. Halaber, herriguneko espazio "freskoak" edo babesgune klimatikoak identifikatu eta ezagutaraztea, aire zabaleko udal-jarduerak berrikustea, herritarrentzako gomen-dioak prestatzea eta pertsona zaurgarrien jarraipen-protokoloak aktibatzea jasotzen ditu. Gaineratu zuenez, plana urtero berrikusiko den tresna "bizia" izango da, eta "hartutako neurriak ebaluatu eta udal-zerbitzuak zein espazio publikoa pixkanaka klima-egoera berrietara egokitzeko aukera emango du".

Igerilekua beranduago itxi dute

Astelehenean, erregistratutako tenperatura altuak ikusita eta unean uneko neurri gisa, Beticiondo kirolguneko igerileku irekia beranduago ixtea erabaki zuen Udalak. Hala, ohiko 20:30eko itxiera-ordua atzeratu, eta 21:30 arte hartu ahal izan zuten bainua ermuarrek.

Kaleratzeak eta jazarpena eteteko exijitu diote ECS Mobilityri



Langileak, Ureta industrialdeko sarreran, elkarretaratzean, uztail hasieran. LAB

Ermuan, Zaldibarren eta Abadiñon lantegiak dituen ECS Mobility enpresan azken hila-beteetan kaleratze selektiboak, lan-baldintzen okertzea eta hitzarmen kolektiboaren ez-betetzeak izan direla salatu du

LABek. Neurri horiek plantilla murrizteko estrategia baten parte direla diote, eta bereziki haren afiliatu eta ordezkari-eragin dietela. Era berean, mobilizazio sindikaletan parte hartzea eragozteko presioak

izan direla adierazi dute. Salaketa beharrezko esparru guztietara eramango dutela iragarri dute: "Lantokietara, udaletara, erakundeetara, Lan Ikuskaritzara eta auzitara".

Ertzain batek adingabe bati egindako ustezko erasoak ikertzen ari dira

Segurtasun Sailaren arabera, errepidean patinete elektrikoan eta kontrako noranzkoan zihon gazte batek agenteen geldiarazteko aginduari kasurik egin ez zionean gertatu zen ertzain baten ustezko erasoak. Desobedientziagatik espedienteak zabaldu eta trafiko-salaketa jarri zizkion adingabeak.

Familiak Eibarko ertzain-etxera jo zuen gertatutakoa argitzera. Operazio-buruak aukera



Patinete elektriko bat errepidean. A. MINGUEZA

eskaini zien arren, ez zuten salaketarik aurkeztu. Hala ere, Eibarko buruzagitzaren informazioa jaso ostean, barne-iker-keta abiatu du Ertzaintzaren Barne Arazoetako Unitateak.

"Goi-mailako lasterkariak eta adrenalina-zaleak batuko ditu Ermuko 'downhill' probak"

MICHEL ZAPATA ARANA PEDAL METAL TALDEKO KIDEA

Hilaren 19an jokatu da DH Ermua bizikleta jaitsiera lasterketaren bigarren aldia; bezperan eta zapatu honetan zirkuitua probatzeko entrenamenduak egongo dira

Ander Gomez

Pedal Metal taldeak Ermuko lehen bizikleta-jaitsiera lasterketa sortu zuen iazko santixautan, eta datorren astean bigarren aldia egingo dute. Hamabost lagun aritu dira antolakuntzan, eta haien artean dago Michel Zapata ermuarra: prestaketa lanak egiteaz gain, lasterketan ere parte hartuko du.

DH Ermua lasterketak bigarren aldia izango du; iazkoa ondo atera zen seinale, ezta?

Guztia aurreikusi bezala atera zen. Alde txar bakarren bat esatekotan, parte-hartzaile kopurua aipatuko genuke. Zoritxarrez, iazko proba Espainiako Txapelketaren egun berean jokatu zen. Horrek kalte egin zigun, eta hirurogei lagun izan ginen.

Ez da gutxi; zenbat batuko dira?

Oraindik ez dakigu, baina laurogei lagunetik gora izatea espero dugu; baita emakumeen parte-hartzea handitzea ere. Iaz, bakarra egon zen, baina aurrean, Espainiako txapeldun izan berri den beste neska batek etorriko dela baieztatu digu. Bestela ere, gizonen goi-mailako lasterkariak egongo dira; tartean, Estatuako rankingean laugarren dagoena, eta Espainiako Txapelketa irabazi izan duten lau euskaldun.

Zirkuitua prest dago?

Domeka honetan bertan egin ditugu garbiketa lanak. Bestela, zirkuitua bera duela hogeita bost urte sortu genuen, Pedal Metal taldea sortu aurretik. Lana izan zen, baina makineriarekin astebetean egitea lortu genuen, eta, gerora, ederki pasa genuen, me-rezi izan zuen.

Urte askoan zapaldu barik eman duzue, ordea.

Kontua da downhill-a ez dela oso kirol autonomoa: bizikletak astunak dira eta, berez, jaitsieran oinarritzen denez... norbaitek



Zapata, DH bizikletarekin; atzean, parte hartu duen lasterketen dortsal bilduma. A.G.

eraman behar zaitu gora. Taldean furgoneta zuten lagun batzuk genituen, baina, denborarekin, nekatu egin ziren eta pixkanaka laga egin genuen.

Dena den, egindako lana ez zen alferrik galdu.

Mendizaleek aprobetxatu dute urte hauetan guztietan Urkora igotzeko. Jende askok ez daki bide hori guk egin genuela.

Bueltatu egin zarete. Zergatik?

Jarraitu izan dugu bizikleta-jaitsierak egiten, baina hemendik kanpo. Hala ere, egia da kirol hori azkenaldian berrindartu

"Jende askok ez daki Urkora igotzeko erabiltzen duen bidea gure zirkuitua dela, duela 25 urte egina"

eta-, 14:00etatik 18:00etara. Lasterketa egunean, errekonozimendu jaitsiera egingo da 10:00etan, berotzeko eta lasterkari bakoitzak zirkuituan aldaketarik egon den ikus dezan. Ondoren, sailkapen-txanda egingo da, 1 Formularen egiten den bezala, denboraren arabera irteera-ordena erabakitzeko. Kirol honetan, ordea, azkarrena azkena ateratzen da. Bukatzeko, 12:00etan jokatu da txanda erabakigarria.

Aste honetan ere entrenamenduak egongo dira.

Bai, baina horiek ez ditugu guk antolatzen; Bizkaiko Txirrindularitza Federazioaren ekintza da. Zirkuitua ezagutzeko eta erreferentziak hartzeko balioko die lasterkariei. Izen-ematea itxita dago jada.

Lasterketakoa zabalik dago?

Bai. Inskripzioak uztailaren 16ra arte egin ahal izango dira eta parte-hartzaileek ez dute zertan federatuak izan behar. *Promo* kategoria dago, eta hortxe lehia-tzen gara afizionatuak, edozein adinetakoak. Helburua ondo pasatzea eta adrenalina pixka bat sentitzea da.

Zenbat ermuarrek eman dute izena?

Luis Gabriel Ruizek eta biok, oraingoiz. 8 urteko ume bat ere izango da; zirkuitua lehen aldiz jaitsiko du hark.

Mendizale asko ibiltzen den bidea dela aipatu duzu lehen; neurri berezirik hartuko da?

Abisuak emanda daude; Artarrairi ere bai, eta mezua zabaldu dute herriko mendizaleen tartean. Hala ere, irakurleei gogorarazten diegu hilaren 11n goizez, 18an arratsaldez eta 19an goizez gomendagarria dela ez igotzea.

Lasterketa ikustera igo ahal izango da, ezta?

Bai, noski. Ikusleentzako sarbideak eta gune egokituak presta-tu ditugu. Urko urte osoan dago han; mendira igotzeko asmoa duten herritarrek lasterketaz gozatzea animatu nahi ditugu. Goi-mailako txirrindulariak bertatik bertara ikusteko aukera egongo da, eta, zirkuitua oso teknikoa eta zorrotza denez akrobazia handirik egongo ez bada ere, ikuskizuna bermatuta dago.


"Proba ikustera gonbidatzen ditugu herritarrek; baina baita dortsala hartu eta parte hartzera"

Ermuko arkulariek Betiondo klubaren bandera igo dute EAEko podiumera

A.G.

Aurten, arku tiro txapelketen egutegia "alderantzizkoa" izan da, eta Estatu mailakoa EAEkoaren aurretik jokatu da. Hala, bi aste atzera elkartu ziren Hondarribian euskal selekzioari dominak eman zizkieten arkulari beteranoak; tartean, Isidro Ganuza ermuarra. Madrilen, banakako lehian, Jorge Carrasco taldekidearen atzetik sailkatu zen, eta oraingoan ere emaitza bera errepikatu zuten. Joan den asteburuan, ordea, txapelketa absolutua jokatu da eta Euskadiko txapeldun izan da ermuarra, *longbow* modalitatean.

Baina Ganuzaren urrezko eta zilarrezko dominak ez dira Ermura etorri diren bakarrak izan: arku tradizionalako proban Jose Mari Muñoz gailendu da, eta Miguel Angel Bastante bigarren sailkatu da; biak ala biak, Betiondo Arku-tiro Klubeko kideak.



Ganuza podiumean. EATF



"37 urtez seme-alaben heziketa nire esku laga dute ermuarrek, eta esker hitzak baino ez ditut"

LUZ ELENA ALIENDE 'LUZE' ERREFORTZU-IRAKASLEA

1989an zabaldu zuen Microtek akademia, Jose Angel Muñoz bikotekidearekin batera; urte luzez ehunka gazte hezi ostean, joan den astean eman zuen azken eskola

Ander Gomez

Luz Elena Aliende Barinagarrementeria (Markina, 1964) biologia da ikasketaz. Felix Rodriguez de la Fuente miresten zuen gazetetan eta naturalista izan nahi zuen, baina bizitzak irakaskuntzaren mundura eramane zuen. Hor topatu zuen benetako pasioa, eta pasio hori hasieratik haren "herri" sentitu zuen tokian garratu zuen, Ermuan.

Zerk eraman zintuen eskola partikularrak ematera?

Ikasketak bukatu nituenean, Jose Angel bikotekideak esan zidan akademia bat zabaldu nahi zuela, eta ni ere animatu nintzen. Betidanik gustatu izan zait irakaskuntza; ama eta amama OHOk irakasle nituen, barruan daramat. Hark Informatika irakatsiko zuen; nik, Matematika, Fisika eta Kimika.

Non hasi zineten?

Ermuan izan gara beti. Casa Blanca eraikina egiten ari zela erosi genuen lokala, eta obra egin bitartean eskolak ematen hasi ginen, nor bere etxean, esperientzia hartzeko.

Zergatik aukeratu zenuten Ermua?

Jose Angel mutrikuarra zen, eta ni, markinarra; eta gureak herri txikiak iruditzen zitzaizkigun halako inbertsio bat egiteko. Pentsa garai hartan ordenagailuak oso garestiak zirela. Auke-

rarik onena hau iruditzen zitzaigun. Gerora, Eibarren ere zabaldu genuen beste bat, baina ez zuen askorik iraun. Lehenengoan asmatu genuen.

Gogoratzen duzu lehen eskola?

Bi neska izan ziren, gaur egungo batxilergoko bigarren mailako Matematika ikastera etorri zirenak. Integralekin hasi ginen. Nik unibertsitatean ikasiak nituen, baina hasieran dena berrikusi behar izan nuen. Hala ere, asko disfrutatu nuen.

Geroztik, zenbat ikasle izan dituzu?

Ezin jakin. Urtero 50 inguru izan ditut, baina, normalean, urte bat baino gehiago egiten dute, DBHn hasi eta batxilergoa bukatu arte askok.

37 urte eta toki berean eskolak ematen ibilita, ikasle ohien seme-alabak ere izango zenituen, ezta?

Familia osoak izan ditut, eta batera ikasten ere bai. Baina bai, ilusio handiena egiten didana da aspaldiko ikasle batek semea edo alaba ekartzea, nirekin gustura geratu zen seinale delako.

Zein da urte hauetan ehunka gaztek zu aukeratu izanaren arrazoiak?

Irakasteko dudak gaitasuna. Ikasleak datozenean, konturatzen naiz jada norbaitek ikasgai hori esplikatu diela baina ez duela asmatu nola transmititu. Niretzat zoragarria da azaltzen hasi eta berehala "hara, hauxe zen!"



Luze, ikasle inguraturak; azken egunean eman zizkioten opariak. SUSANA GONZALEZ

entzutea. Begietara begiratuta jakiten dut noiz ulertu duten, eta hori sekulako sentsazioa da.

Ze alde nabaritzen duzu gaur egungo eta duela 30 urteko ikasleekin?

Ikasleen artean alde handirik ez dago, eta nire ikasgaiak ere oso konstanteak dira denboran, edukia ez da askorik aldatu. Informatikan bai, akademia zabaldu genuenean booma zelako. Gero, behera egin zuen, eta, aldi berean, gaur egungo gazteak teknologiaren txipa jarrita jaio direla dirudi; kar-kar. Orokorreran, eta serio jarrita, benetan aldatu dena ikasleek jasaten duten presioa dela uste dut. Gero eta nota altuagoak behar dira ikasketetara sartzeko, eta azterketen eta errekupeazioen arteko tarteak gero eta laburragoak dira. Oso estresagarria da hori.

"Irakasteko sena ama eta amamarengandik jaso dut; ikasleei begiratuta badakit ulertu duten edo ez"

Ze aholku ematen diezu?

Azken egunean esan niena, adibidez: bizitzan malguak izan behar dugula, eta beti dagoela beste bide bat hartzeko aukera. B plan bat izatea garrantzitsua da.

Nolakoa izan zen azken egun hura?

Berez, maiatzean abisatu nien beste toki bat bilatu behar zutela, eta pena handiz hartu zuten, baina, aldi berean, maitasun-keinu handiak jaso nituen. Azken egunean sorpresa ederra eman zidaten, guraso batek *engainatuta*: lore-sorta batekin eta eurek egindako oroigarri batekin agertu ziren.

Zerk bultzatu zintuen erretiroa hartzeko erabakia hartzera?

2019an, Jose Angel zendu zen, eta azken bi urteak bakarrik egon naiz akademian. Gainera, Markinan beste bat zabaldu nuen,

"Ilusio handia egin dit ikasle ohiek seme-alabak ekarri izanak; nirekin gustura geratu ziren seinale"

alaba txikia zenez hiru egun han egoteko eta beste hiru hemen. Hala ere, jarraitzeko asmoa nuen, baina, azkenaldian, ebakuntza ugari izan ditugu familian, eta geratzeko seinale bezala hartu nuen. Pena handia izan arren, ondo egin dudala uste dut.

Eta orain, zer egingo duzu?

Ez naiz aspertuko. Baratztea eta lorategia ditut, txakurra, 16 urteko alaba eta 92 urteko ama. Denbora gehiago izango dut paseatzeko, lasaiago bizitzeko; gustuko ditudan gauzez gozatzeko.

Ermuarrentzat agur-berbarik baduzu?

Agurrik ez, nik bi herri ditudala esaten dut: Markina eta Ermua, biak maila berean. Beti sentitu izan gara oso estimatuak eta oso gustura hemen. Eskerrak eman nahi nizkieke gurasoei, euren altxorrik handiena diren seme-alabak gure esku lagatzeagatik; akademiatik igaro diren irakasleei: Mari Feli, Peio, Edu, Rakel, Zigor... asko bizi eta partekatu dugulako elkarrekin; eta Ermuko herriari, hain ireki eta abegikorra izateagatik.

Astelehenetik aurrera udako ordutegia izango du Udal Liburutegiak

A.G.

Gaur, uztailak 10 –barikua–, izango da liburutegiak arratsalde zabalduko duen azken eguna, 16:30etik 19:30era. Hilarren 13tik abuztuaren 31ra bitartean, goizez bakarrik zabalduko ditu ateak, 09:00etatik 14:00etara. Asteburuetan eta

jaiegunetan itxita egongo da, urrira arte.

Ikasleentzat ikasteko eta lan egiteko baliabidez hornitutako gune lasaia izaten jarraituko duela agindu dute; baina, aldi berean, herriarrentzako babesgune klimatiko izango dela berro-boladetan, kultura eta aisial-


di eskaintza zabalarekin. Gogorazi dute liburu, komiki eta aldirakarekin gain mahai-jokoak daudela eskuragarri: Catan, Azul, Kapla, Piou Piou, partxisa, xakea eta puzzleak, besteak beste.

Mailegu-zerbitzuari dagokionez, jokoak astebetez eraman ahal izango dira etxera. Horrez gain, liburuaren mailegu-baldintzak malgutu egingo dira: erabiltzaileek ale gehiago hartu ahal izango dituzte eta bueltatzeko epea luzeagoa izango da opor garaian.

Dirulaguntzak emango dira eskolako materiala Ermuan erostearren

2026-2027ko ikasturterako materiala erosteko dirulaguntzak emango ditu Udalak, familiei eta tokiko merkatariei laguntze aldera. Deialdiak 200.000 euroko aurrekontua du, eta tokiko detan erositako arropa, oinetakoak, kirol-materiala, material informatikoa, betaurrekoak,

lentillak... finantzatzeko aukera emango du. Gehienez, 90 euro emango dira ikasle bakoitzeko, eta eskaerak irailaren 1etik aurrera egin ahal izango dira, erosketa-frogagiria aurkeztuta.





Berbalagunak eta finalera ailegatu ziren herritarrak, iazko finaleko sari-banaketan. LOREA ARREGI

'Ez esan!' jokoaren lehen fasea bukatuta, oporren ostean jokatu dute finala irabazleek

Berbalagunek antolatutako galdera-erantzun jokoaren hileroko lehia bukatu da; aurtan, lau lagunek bakarrik lortu dute finalerako txartela, eta ekainean egin ohi den azken saio hori udazkenara atzeratu dute, antolaketa arrazoiengatik

Ander Gomez

Urtarriletik ekainera bitartean, hileroko Mallabiari buruzko bost galdera egin dituzte Berbalagunek, *Ez esan!* galdera-erantzun jokoaren baitan. Herritarren parte-hartzea nabarmena izan da, eta 70 eskuorri baino gehiago entregatu dituzte. Aurtan, gainera, mallabitarra edo ermua ez den norbaitek ere parte hartu du lehen aldiz: elgoibartar batek. Antolatzaileek pozik hartu dute kanpoko parte-hartzea, eta inguruko herritarrak animatu dituzte hurrengo aldira batze-

ra; "Mallabitarrentzat sortutako lehiaketa den arren, herriko kontuak Euskal Herrian zabaltzea ere inportantea da".

Lehen fasean galdera guztiak asmatu dituztenak gutxi izan dira, hilabete bakoitzeko bana. Berbalagunen esanetan, "horrek adierazten du parte-hartzaileek ez dutela tranparik egin eta benetan proban jarri dituztela herriko historiari, ondareari, bitxikeriei eta berezitasunei buruz dituzten ezagutzak".

Aurtengo lehen irabazlea Maite Unzurrunaga izan zen, urta-

rrileko bost galderak asmatuta. Otsailekoak Leixuri Solozabalek asmatu zituen, irudian agertzen zen tresna barne: zazpihortza. Martxoko galdetegia tematikoa izan zen, Barrenaren inguruko gaiekin, eta Enara Arronategik erakutsi zuen sortu berri den komunikabideari buruz gehien zekiena zela. Apirilean galderak idatziz erantzuteko eskatuz joko apur bat zaildu zuten arren, fin ibili zen Maribi Carrillo, eta guztiak zuzen erantzun zituen. Maiatzean, *A ala B* formatura bueltatu zen galdetegia, eta Leixuri

Solozabalek bigarren irabaztea lortu zuen. Ekainean, berriz, inork ez zituen galdera guztiak asmatu, eta irabazlerik gabe geratu zen seigarren eta azken hilabetea.

Finala atzeratu egin dute

Azken bi aldietan, *Ez esan!* lehiaketako finala *Mallabitarrok egi-na* ekimenaren programazioarekin bateratu zuten. Asteburu goiz batean, irteera egiten hasten zuten eguna; bukatutakoan, herri-gunera bueltatzen ziren mokadutxo hartzera; eta, behin indarrak berrituta, lehiaketako finala jokatzeko zuten parkeko aterpean. Aurtengo *Mallabitarrok egi-na* bertako industrialdea ezagutzeko irteera izan da, eta, arratsalde zenez, ezinezkoa izan dute bi ekintzak uztartzea. Hori dela eta, eta ekimenak udazkenean beste irteera bat egiten duela kontuan hartuta, azken saioa atzeratzea erabaki dute.

Aurreko urteetan sei finalista aritu izan dira lehian, baina aurtan lau bakarrik lortu dute finalerako txartela. Gutxi diren arren, formatua mantentzearen alde egingo dutela azaldu dute antolatzaileek: parte-hartzaileak zozketa bidez osatutako bikotetan lehiatuko dira lehen buelta batean, eta onenek buruz buruko azken norgehiagoka jokatu dute. Hori bai, galderak ez dira test motakoak izango; finalistek erantzunak buruz jakin beharko dituzte.

Rober Rodriguezek eta Estibalitz Gonzalezek erakutsi dute Mallabiari eta mallabitarrei buruz gehien dakitenen artean daudela aurreko aldietan. Aurtan, Unzurrunagaren, Solozabalen, Arronategiren eta Carrilloren artean dago lehia. Bakar batek jantziko du txapela eta jasoko du Berbalagunen opari-sorta potoloa.

Munduko Txapelketa jokatzeko sailkatu da Nestor Alonso



Nestor Alonso, dominak kolkoan. ISKA

A.G.

Mallabitarrek ekain bukaeran euskal selekzioa ordezkatu zuen Bilbon jokaturako Estatu mailako ISKA Kickboxing Txapelketan. Casilla pabiloiko tatamietan lehiatu zen, 70 kiloz azpiko beterranoen kategorian. Parte-hartzea txikia izan zenez, domina ziurtatuta zuen; baina urrezkoa esku-ratzea zuen helburu. *Kick light* modalitatean txapeladunorde izan zen; *K1 light* modalitatean, berriz, urrea lortu zuen. Garaipena familiarekin ospatu zuen: "Etxera ailegatu eta xanpaina bota zidaten goitik behera, baina oraindik ere ez nuen sinesten". Orain, azaroko Munduko Txapelketa jokatu duela barneratu beharra dauka.

Entrenamenduen intentsitatea handitu egingo du, "sparring gehiagorekin eta saio teknikoagoekin"; baina gimnasioan ez ezik, egunerokoan ere prestatzen ari da: "Baserrian tatamia muntatu dut, eta hantxe ibiltzen naiz, 2 urteko semea alboan dudala nire mugimenduak kopiatzen". Gogor entrenatuko den arren, dagoeneko irabazi duen sentsazioa daukala dio: "Unibertso txapelketarik ez dago; lehia go-renera ailegatzea lortu dut, eta oso harro nago".



Maite Unzurrunaga, urtarileko irabazlea. JUANMI BRAVO



Leixuri Solozabal, otsaileko eta maiatzeko irabazlea. J.B.



Enara Arronategi, martxoko irabazlea. J.B.



Maribi Carrillo, apirileko irabazlea. J.B.

"Tortilla Lehiaketa beteta dago, eta talde batzuk 4-5 pertsonakoak izango dira"

ROMAN MAIZTEGI, ANDER SANTAMARIA ETA OIER CERREJON SAN ANDRES ELKARTEKOAK Pilota, bola-premioa, bazkari-afariak, zezenak, Lizaso, Egaña, Laja, Lutxurdio... denetariakoak izango dira egunotan San Andres auzoko jaietan

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Gaurtik astelehenera arte auzoko jaiak ospatuko dituzte San Andresen. Urte hasieran hasi ziren lanean elkarteak kideak, eta egitarau betearekin prestatu dute.

Gaur ere bada zer San Andresen.

19:00etan, makala altxatuko dugu. Bertan ipinita 8-10 metro altu izango da, eta puntan elkarteak ikurrina egongo da. Makala jarri eta gero, kanpai bueltakoa egingo dugu. 6-7 lagun arituko gara kanpaia jotzen, eta makala altxatzen, askoz gehiago, 10-12 bat. Joan bila, moztu, ekarri... Egunean bertan egiten dugu dena. 15 lagun elkartuko gara. Gero, afaldu egingo dugu: txorizo-probatzea, jaietan emango dugun txorizoa.

6-7 lagun artean tiratzeko, kanpaia handia da, ala?

Bai. Metro altu-edo eta pisu dezentekoa dauka. Mihia bera metro erdikoa da; behin, Romanen zelaira joan zen, jotzen hasi eta *zas!* Nahikoa topatu genuela! Egurrezkoa da eta puntan burdinazko bola dauka.

Ekitaldi ugari eta janaria ere denetariakoak izango duzue jaietan.

Bai. Txorizoa, txistorra, hirugiharra, solomoa, tortillak... Dena, geuk eginda.

Eta Tortilla Lehiaketa...

Bai. Zapatu eguerdian. Beteta dago. Iaz, hamar bat lehiakide izan ziren; aurten, hemeretzi da muga, eta hamasei, behintzat, badatoz; batzuei esan zaie ez dagoela lekuri. Bi pertsonako taldeak izan beharrean, batzuk lau-pabostekoak izango dira. Herrikoak denak. Patata-tortilla lehiaketa da; tipula eraman dezake, baina ez beste ezer. Saria izango da bi lagunendako afaria, debalde. Esteban Laskurain eta Luismari Unamuno izango dira epaile, sukaldari erretiratuak. **Zapatuan ere, pilota hitzordu inportantea.**

Asier eta Iñakirena, 25. urterena; hirugarren eta laugarren postuak eta finala jokatu dira. **Eta zezena plaza berrian.**

Bai; Bergarako zezenak; jende gehien zezenak ekartzen du.

"Behin, kanpaiaren mihia Romanen zelaira joan zen, jotzen hasi eta 'zas!' Nahikoa topatu genuela!"

Aurten, zati txikitxoagoa gertuko zaigu parke berriarekin.

Zein da zapatuko afarirako aurreikuspena?

100 bat lagun edo. Iaz, 100 bat izan ziren; Ogitartekoak ere izango dira. Afariko menua da bakailao-tortilla, basatxerri-solomoa, entsalada, gazta eta menbrilloa, kafea, kopa, purua eta dantza. Izena arratsaldean bertan emanda nahikoa da. Prezioa 25 euro da. Eta dantzarako, Maddalen Arzallus taldekide duen Obaneuke taldea, 00:30ean.

Domekan, pilota, meza, musika...

Hasiko gara eskuz binakako partidarekin. Gipuzkoako Etxaniz-Balerdi (Bergara-Antzuola) Bizkaiko Albizu-Okamika (Munitibar-Gizaburuaga) bikotearen kontra. Gero, meza, 13:30ean, Joseba Gonzalez parrokoarekin. Eta egun osoan egongo dira bertsolariak eta trikitilariak: Aitor Mendiluze eta Jesus Mari Irazu eta Itzeder Arrizabalaga eta Lidia Irigoien. Gero, bazkaria izango da, 14:30ean. Edozeinek bazkaldu dezake han. Gu 20-25 bat egoten gara.

Arratsaldean, berriz, kirol gehiago.

Bai; 18:30ean, herri-kirol erakustaldi mistoa, Xabat Olaizolaren



Goitik behera, Maiztegi, Cerrejon eta Santamaria, elkartearen sarreran, astelehenean. U.M.Z.

taldearekin. Eta 19:00etan, bola-premioa, nahi duten guztientzako; momentuan izena emanda parte har daiteke. Garaikurrak dirasari. Hirugarrenetik lehenengoraino eta auzoko lehenengoraino. 19:30ean, berriro zezenak; eta gero, afariak elkartearen, 21:00etan hasita. Hori ere, nahi duenarendako. Jendeasko gertatzen da, eta afalduta etxera joan.

Auzotarren eguna, baina, astelehenean da, ezta?

Bai, 13:00etan, meza izango da auzoko hildakoen alde; gero, 14:30ean, bazkaria izango da,

"Asteleheneko afalosteko erromerian, 02:00 aldera arte ibiltzen dira hemen"

urte luzez datozen Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariarekin eta Laja -semea- eta Lutxurdio trikitilariarekin. Umeen jolasak 18:00etan eta segidan emakumeen bola-txapelketa; hori, edozeinendako. Eta bazkalostean eta afalostean erromeriak izango dira, Laja eta Lutxurdioarekin; adibidez, 02:00 aldera arte ibiltzen dira hemen.

Elkarteak antolatzen ditu jaiak; aurten, kamiseta berriarekin, gainera.

Bai, bazkide guztiendako; aspaldikoa zen lehengoa. 32 bat bazkide gara. Urte hasieran hasten gara jaiak prestatzen. Orain, leku askotan daude jaiak, eta talde asko hartuta egoten dira, beste askok dirua eskatzen dute eta... Auzoko jaietarako Udalak laguntzen du, eta, bestela, elkartetik ipintzen dugu, txosnatik aterata...

Tchin Tchin
UDA

**BESTE 2 BETAURREKO
EURO BAT GEHIAGOAN***

ETA 3.A ZURETZAT EDO OPARITZEKO

AFFLELOU ADVENTURERE, AFFLELOU CIAO, AFFLELOU JEAN modelak

*Eskaintza baliagarria 2026/06/01etik 2026/08/31era arte, Espainiako eta Andorrako Alain Afflelou optika gutxiesten, bizi baldintzak optikan edo afflelou.es-en. Irizpateak produktuak beraz indarman dagoen legeria berretzen du. 1/25 enregistrazio-zerbitzua.

ALAIN AFFLELOU
Optika, Audiologo

**SAN BARTOLOME
KALEA, 10
ELGOIBAR**

943 74 37 34

Eskatu txanda
afflelou.es

Eraman dituzte egoitzako lur-jausiak harrapatutako sorgailua eta depositua

Zegoen amiantoa erretiratu dute eta magala egonkortzeko lanak egiten ari dira

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Aste honetako eguaztenezan atara eta eramane dituzte Mesedetako egoitzaren ondoko mendi magalean 2024an izandako luiziak harrapatu eta lurperatuta lagazituen argi-sorgailua eta depositua. Datozen asteotan, berriz, mendi-magala egonkortzeko lanak egingo dituzte.

Bergarako Elurlan enpresa ari da magala egonkortzeko lan horiek egiten.

Enpresako ugazaba Iñigo Almortzak esplikatuakoaren arabera, orain arteko lanen artean, magalaren goiko pareta eta egoitzaren izkinakoa metro bat jaitsi dituzte, eta bertan zeuden argi-sorgailua eta depositua atara dituzte.

Datozen asteotan, berriz, inguru osoa garbitzen jardungo dute, paretaren harria bistaratu arte. Eta dena garbitu ondoren,



Depositua eta argi-sorgailua edukiontzian, eguazten eguerdian. U.M.Z.

buloiak sartuko dizkiote paretari, gero sarea jarri eta, azkenik, tentsoreak jarriko dituzte, paretari ondo eutsi eta magala egonkortuta lagatzeko. Egoitzaren ondoko pareta dagoen moduan lagako dute, hain justu.

Azken lan horiek Tesinsa enpresak egingo ditu.

50 metro luze

Egunotan, 50 metroko luzera duen garabia erabiltzen ari dira lanok egin ahal izateko;

edukiontzia ateratzeko eta bestelako lanak egiteko tamaina horretakoa behar dutela azaldu du Almortzak. Hark gaineratu duenez, lanak "erritmo onean" doaz; beraz, ezustekorik ezean, aurreikusitako moduan, uztailaren amaierarako bukatuko dituzte guztiak.

Magala egonkortzeko lanak egiten hasi aurretik, berriz, Sorraluzeko Udalak esan zuenez, han zegoen amiantoa erretiratu egin zuen Lurkide enpresak joan den astean.

Lan horien guztien aurrekontua 67.055,68 eurokoa izango da, BEZa barne.

2024an, bi luizi

Sorraluzeko Udalak argitaratutako xehetasunen arabera, 2024ko martxoan Atxuri kalean izandako luiziaren ondorioz, ezponda eta magala desegonkortu egin ziren.

2024ko abenduaren 25eko goizaldean, berriz, Mesedetako ondoko lursailean beste luizi bat gertatu zen. Bigarren luizi hark azpian harrapatu zituen, besteak beste, egoitzako galdara eta argi-sorgailua; horiek erretiratu dituzte egunotan.

Irailaren 4ra arte zabalik Guraso Eskolan izena emateko epea

Katamarran, Atxolin eta Keixeta guraso elkarteek ekimenez, Guraso Eskola iraunkorrek jarraipena izango du 2026-2027ko ikasturtean, Nerea Mendizabalek dinamizatuta.

Edozein adinetako seme-alaben gurasoek parte hartu dezakete, eta komunikazio ez-bortitzaren printzipioak ikastea izango du xede: seme-alabekin modu sakanagoan konektatzea, gatazkak modu baketsuan eta eraikitzailean konpontzea eta familia-lotura eta -giro harmoniatsuagoa lortzea.

Guraso Eskola urritik maiatzera, zazpi saiotan, hilean behin bilduko da bi orduz. Saio bakoitzean gai bat landuko da, teorikoki zein praktikoki, eta jarraian, parte-hartzaileek eramandako gai eta egoerak aztertzea bideratuko da lanketa. Izen-ematea zabalik dago, irailaren 4ra arte. Gehienez hamabost lagunekoko taldea osatuko dute. Leku baino izen-emate gehiago badaude, izen-emate hurrenkeraren arabera osatuko dute taldea.

Datorren astean ailegatuko dira jaietan izango diren barrakak

U.M.Z. SORALUZE

Datorren martitzenerako, uztailak 14, Erregetxea libre laga behar da, autoz hustu, orduantxe hasiko baitira aurtengo jaietarako barrakak bertara ailegatzeten eta muntaketa-lanak egiten.

Udaltzaingoak aste honetan bertan jarri ditu horri buruzko ohartarazpen-seinaleak eta zinta Erregetxean; han apar-

katutako autoetan paperak ere laga ditu, eta hainbat egunez ibilgailuak Erregetxean apartatuta duten edo izaten duten hainbati zuzenean abisatzen ari da, martitzenerako dena libre egon dadin.

Betiko barrakak

Sorraluzeko Udalak jakinarazi duenez, aurtun ere azken ur-

teotako atrakzio klasikoak izango dira Erregetxean: autotxoak, lapikoa, ohe elastikoak, txiki-parkea, zezentxoak, tiropitxoia, ahatetxoaren arrantza-postua eta txurro-denda, hain zuzen ere. Eta Plaza Zaharrean, berriz, jostailu-saltzailea izango da.

Horren harira, hainbatek uztailaren 17an zabalduko dituzte barrakak, barikuan; beste batzuk, berriz, geroxeago hasiko dira. Baina, edozein kasutan, uztailaren 17tik 20ra bitartean zabalduko dituzte.



Ohartarazpen-seinalea. U.M.Z.

Inoiz erakutsi bako lanen erakusketa Oreka Art galerian

Gaur, barikua, erakusketa bat zabalduko dute Oreka Art galerian. Oraingoan, ez da izango kanpoko artistarik, baizik eta Oreka Art galeriaren bildumako obrekin osatuko dute erakusketa. Inoiz erakutsi bako obrak izango dira ikusgai; tartean, galeriaren kudeatzaile Alberto Ramirez artistaren lanak. 19:00etan inauguratuko dute.

Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura

EXGA S.L. 679 623 584 Sorraluze

Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburguesak, egizterleak, raziak, pizak, gozaria...

Enkarguak aipatu dira Tel. 943 75 17 99

SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13 Sorraluze

476 556 817 - 943 75 21 38

Autoak, motoak, motoz, itv

ODRI

Mota guztietako leihoen, pertsiarrek, ateak, barandilak, salmanta eta konporketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609

Sagar Enrika Kalea 2 - 20990 SORALUZE

e-mail: odrileihoa@gmail.com

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67

aras

zehaztasun handiko piezak

Mendiola Industrialdea 19

Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03

Fax 943 75 22 95

aras@tomilleraaras.com

www.tomilleraaras.com

BOLIA

Finboak, artioak, konbinatuak

Guztira-guztira festa

Barrena

DEBARRERENKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publikitatea

BARRENA asteakarian

edo

www.barrena.eus

webgunean

943 743 704

688 769 657

Bihar, zapatua, Tximas Eguna ospatuko da, animalien santutegiarendako dirua batzeko

Eguerdian hasi eta gaueko ordu txikiak arteko ekitaldiak izango dira gaztetxean

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Bergarako Basalgo auzoan da goen Tximas animalien santutegiari laguntzeko Tximas Eguna antolatu dute Soraluzean. Zehazki, animalien aterpetxe horrendako dirua batu nahi dute, eta, horretarako, bihar, zapatua, eguerdian hasi eta gaueko ordu txikiak arteko ekitaldiak antolatu dituzte gaztetxean.

Ekimenaren antolatzaile eta Tximas santutegiko boluntario Jone Arruabarrenak jakinarazi duenez, 12:00etarako gaztetxeako barra zabalduko dute, eta edariek batera pintxo beganoak jarriko dituzte salgai. Aldi berean, Tximas aterpetxearekin lotutako *merchandising*-a erosteko aukera ere izango da.

Eguerdia parte musikarekin borobilduko dute, 12:30ean J.M. Akustik abeslari eta gitarra-jo-



Jone Arruabarrena, Tximas Egunaren kartelarekin, gaztetxe aurrean. U.M.Z.

leak emango duen kontzertuarekin.

Dokumentala, hitzaldia...

Arratsaldeari dagokionez, berriz, bi hitzordu egin dituzte. 16:00etan, *Cuori Liberi* dokumentala proiektu-

tatuko dute. Italiako santutegian 2023an bizi izan ziren gertakariak buruzko ikus-entzunezkoa da; txerri-izurritea tarteko, indarrez sartu ziren santutegira animaliak akabatzen; haiei aurre egiteko aktibista asko elkartu ziren, eta

bortizki egin zuten euren kontra. Haren ondoren, 18:00etan, animalien santutegiei buruzko hitzaldia egingo dute.

Tximas Eguna amaitzeko, 21:30ean hasita, bi taldek kontzertuak emango dituzte, debalde, santutegiaren alde. Mungia-ko Beleak taldea izango da taularatzen lehena, eta, segidan, Barakaldoko Sexpeares taldearen txanda izango da.

Baserriko animaliak

Animalien babesleku-santutegia 2022an sortu zuten Angel Artetxek (Zestoa, 1978) eta Antero de Javierrek (Bilbo, 1969). Euren katu *Tximas*-en izena jarri zioten aterpetxeari, eta, orain dela hamar hilabete, Bergarako Basalgo auzoko Telleria baserrira lekualdatu ziren.

Zestoa zizutzen 250 animalia eramane zizutzen Basalgora, eta 300 bat dituzte gaur egun. Batik bat, baserriko animaliak hartzen dituzte Tximas aterpetxean, haiek produktibo izateari lagatakoan hiltegi eraman edo nonbait abandonatuta hiltzen laga beharrean, bertan bizi daitezela, hil arte. Musu-truk egiten dute eta ez dute dirulaguntzarik jasotzen.

O, A, AB eta B negatibo motetako odolaren premia handia dago

Gaur zortzi, uztaileak 17, egingo dituzte udazkenara bitarteko azken odol ateratzeko Itxaropena Erretiratuen Elkartearen. Hori horrela, eguaztenean eta eguenean hartu ahal izango da Internet bidezko txanda, *Gotatanta.eus* atarian. Eta, bestela, barikuan bertan, telefonoz deituta ere hartu ahal izango da: 943 00 78 85.

Euskadiko Odol Emaileen Elkartearen arabera, lau odol motatan premiazkoa da odola ematea, gaur egun dauden odol-erreserba mailak oso baxuak baitira: O negatiboan, A negatiboan, AB negatiboan eta B negatiboan. Eta beharra dago ere, O positiboan eta AB positiboan.

Horrez aparte, urteko sasoi honetan, udan, beti egoten da odol premia handiagoa.

Odola eman dezakete 18 eta 70 urte bitarteko pertsonak –65 urte, lehenengo aldiz balitz–, betiere, 50 kilo baino gehiago pisatzen badute eta osasuntsu badaude.

50. urteurrena, futbol zelaiko belar aldaketa eta beste hainbat gai Soraren batzar orokorrean

Soraluze Futbol Taldeko zuzendaritzak ontzat jo du bukatu den denboraldia

U.M.Z. SORALUZE

Soraluze Futbol Taldeak klubaren 50. urteurrenari begira hasiko du 2026-2027ko denboraldia. Herriko futbol taldeak joan den astean egin zuen batzar nagusia, eta, bertan jakinarazi zuten, irailean hasiko dira urteurrena prestatzen, "bilera irekia" eginez, parte hartu nahi duten guztientzat zabalik.

Datorren urtean talde gehiago

Bestalde, zenbait beritasun ere partekatu zituzten batzarrean. Adibidez, esan zuten laster hasiko direla futbol zelaiko belarra aldatzen. Aurreikuspena da abuztuan hasia eta irailean ez urrian bukatzea lanak, baina ez dute data zehatzik. Hori horrela, baliteke denboraldi hasierako hainbat partidu etxetik kanpo jokatu beharra izatea.

Beritasunekin segituz, azaldu zuten datorren urtean Mikel

Recio futbolari soraluzetarra klubean arituko dela, figura berri modura, lan berria egingo baitu: kadeteen eta gazteen arteko koordinatzaile-lanak. "Urtero hobetzen ahalegintzen gara, eta hori bide horretatik doa, hobetzeko ahalegin horretatik; asmo berarekin jarri ditugu ekipo bakoitzean bi entrenatzaile, talde guztietan atezainen entrenatzailea eta futbol eskolan koordinatzailea", esplikatu zuten.

Ildo beretik, esan zuten lan horren emaitza ontzat har daitkeela datorren urtean infantiletatik jubentzetaraino bina talde osatzea; edo, esate baterako, Realak Sorako Ander Agirregomezkorta jokalaria fitxatu izana. "Gauzak ondo egin diren seinale. Anderrek Soran egin du futbolari ibilbidea; beste batzuk lehenago

sartzen dira Realean eta han egiten dute ibilbidea, baina Anderrek Soran egin du formazioa, eta Sorako entrenatzaileek ere asmatu dute haren. Inguruak laguntzen duenean emaitza onak datoz, eta hori izan liteke Anderren kasua", esan zuten.

Balorzio positiboa

Osterantzean, ontzat jo zuten bukatu berri den denboraldia; batik bat, emaitza onak eta giro ona nabarmendu zituzten, baita ekipoek denboraldian izandako garapena ere.

Bestalde, pozik azaldu ziren futbol klubaren arropa-sistema berriarekin; eta, besteak beste, positibotzat jo zuten denboraldi amaieran klubeko partaide guztiek elkarrekin egindako bazkaria; hori errepikatzen asmoa erakutsi zuten.

Udaleku irekien lehen astea bukatu dute gaur; datorren astean, gehiago

U.M.Z. SORALUZE

Aste honetako astelehenean, Marrasen ongietorriarekin hasi zituzten udaleku irekiak 3-12 urte bitarteko Soraluzeko 159 bat umek. Denetik egin dute lehen egunotan: entzierroa, irteerak, etxetik kanpo lo... eta, noski, elkarrekin jostatu herriko kaleetan eta txokoetan. Hori guztia, Kukumixoa Aisialdi El-

kartearen 20 hezitzailearen eta sei praktikantzailearen eskutik.

Kale Kolore Eguna

Datorren astean izango dute segida udalekuek, barikura arte. Hain justu, azken egun hori izaten da indartsuenetakoa, Kale Kolore Eguna; elkarrekin bazkaldu, jolas zikinak egin eta ur-txirristarekin gozatzen dute.



Udalekuek udaleku irekien lehen astea bukatu dute gaur; datorren astean, gehiago. U.M.Z.

Garitaonandia eta Zenarrutzabeitia, Espainiako Surf Txapelketaren podiumean

Debako bi surflariek hirugarren postua eskuratu dute, nork bere kategorian

Nerea Bedialauneta Alkorta

Bitor Garitaonandia eta Ugaitz Zenarrutzabeitia surflari debarrrek hirugarren postua eskuratu zuten aurreko astean Galiziako uretan jokaturako Espainiako Surf Txapelketan. Garitaonandiak gizonezkoen Open mailan lortu zuen brontzea (8,90 puntu), eta Zenarrutzabeitiak, berriz, 18 urtez azpiko gizonezkoen kategorian (8,47 puntu).

Iaz parte ez hartzea erabaki ostean, Garitaonandia "oso pozik" dago aurten lortutako emaitzarekin. Txapelketa oso sendoa osatu zuen haren mailan, baina, hala ere, aitortu du sentsazio gazi-gozaarekin amaitu zuela lehia: "Pena pixka batekin geratu nintzen, ez nituelako erabaki onenak hartu finaleko olatuak aukeratzeko. Baina, aldi berean, pozik nago; badakit olatu onak aukeratu izan banitu eta nire surfa egin izan banu, txapela lortzeko aukera izan nezakeela".

Europako QS zirkuituari ekingo dio laster, eta, alde horretatik, hirugarren postuak konfiantza eman diola erantsi du: "Datozen lehiaketei aurre egiteko konfiantza eman dit, eta motibazio puntu bat ere bai".

"Arantza bat sartuta"

Zenarrutzabeitia, bestalde, "nahiko pozik" dago emaitzarekin, baina, asko entrenatu ondoren, gehiago egiteko gai zela uste du. Horren harira, "arantza bat sartuta" geratu zaiola onartu du:



Garitaonandia, podiumean. ESPAINIAKO SURF FEDERAZIOA (FES)



Zenarrutzabeitia, 18 urtez azpiko kategoriako sari banaketan. FES

"Txapelketa osoan oso ondo aritu nintzen surfean, eta oso ondo lehiatu nintzen, eta finalean hobeto egin nezakeen nire lana".

Dena den, emaitzak lanean jarraitzeko eta "etorkizunean beste emaitza on batzuk lortze-

ko" indarra eman diola dio. Hurrengo astei begira, debar gazteak urteko azken sailkapen-probetan postuak irabaztea eta Espainiako zirkuituan hiru onenen artean amaitzea izango ditu helburu.

Bihar salduko dituzte Debasketen urteurren bazkarirako txartelak

N.B.A.

Debasket Saskibaloi Klubak hamar urte beteko ditu datorren irailean, eta, azken hamarkadako lana eta ibilbidea gogoratze-ko, festa handi bat antolatu du irailaren 5erako. Herritar guztiak zein kirol klubeko komunitate osoa gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. Ospakizunaren baitan, herri bazkaria egingo

dute, Zumardiko karpan, eta, adierazi dutenez, txartelak bihar jarriko dituzte salgai, uztailek 11.

Udaletxe azpian jarriko duten postuan eskuratu ahal izango dira txartelak. Jokalari zein talde teknikoko kideek 5 euroan lortu ahal izango dituzte, eta gainerakoek, 20 euroan. Bihar bertaratzeko aukerarik ez dute-

nek Turismo Bulegoan izango dituzte eskuragarri hurrengo asteetan. Bihar, gainera, urteurrenerako propio sortu duten kamiseta erosteko aukera izango da; diseinua Beñat Urriola-beitiarena da, klubeko jokalarien artean antolatutako lehiaketa baten bidez hautatua.

Bestalde, klubak gogorarazi du zabalik dagoela taldeetan izena emateko epea; www.debasket.eus/inskripzioak atariaren bidez edo debasket@debasket.eus helbide elektronikora idatziz egin daiteke.



Jo Ta Su Boxing klubeko kideak, ekitaldia iragartzeko kartelekin. N.B.A.

Aldats pilotalekua boxeo erakustaldi baten agertoki izango da hilaren 18an

Jo Ta Su Boxing klubak antolatu du hitzordua, eta bost borrokaldi ikusteko aukera izango da; sarrera doakoa da

N.B.A.

Aldats pilotalekuak Deban egingo den lehen boxeo erakustaldia hartuko du uztailaren 18an, larunbata. Jo Ta Su Boxing klubak antolatutako kirol jaialdia 19:00etan hasiko da, eta atek 18:30ean irekiko dituzte.

Sarrera doakoa izango da, eta klubak pilotalekuko harmailak betetzeko dei egin die herritarrei. Alde horretatik, baikor daude. "Erantzun ona espero dugu", zehaztu dute.

Ekimenaren helburu nagusia boxeo herritarrei hurbiltzea dela nabarmendu dute. Klubeko kideen iritziz, kirol horren bueltan oraindik ere aurreiritzi ugari daude, eta erakustaldiaren bidez irudi hori aldatu nahi dute. "Jendeak ikus dezala boxeo modu seguruan praktikatu daitekeen diziplina dela, arriskurik ez duena eta edonork praktika-tu dezakeena", azaldu dute.

Klubeko kirolariak protagonista

Familia osoari zuzendutako jaialdiak ordu eta erdi inguru irautea aurreikusten dute, eta guztira bost borrokaldi egingo dituzte, guztiak klubeko kirolariren artean. Antolatzaileek azaldu dutenez, parte-hartzaileen pisua eta maila kontuan hartuta ahalik eta norgehiagoka parekatuenak osatzen saiatu dira.

Eta datorren asteko hitzorduak benetako boxeo jaialdi baten itxura izan dezan, pilotalekuan 5x5 metroko ring bat jarriko dute. Giroa berotzeko, gainera,

esataria eta musika ere izango dira.

Jo Ta Su Boxingeko kideek adierazi dutenez, aspalditik ari dira datorren asteko hitzordua errealitate bihurtzeko lanean, eta ilusionatuta daude: "Denbora luzea daramagu entrenatzen, horretarako azpiegitura egokitzten eta egin beharreko guztiak mimo handiz aurrera eramaten". Gaineratu dutenez, aspalditik zeukaten horrelako jaialdi bat antolatzea nahia: "Hau lehen pauso bezala ikus daiteke, gero lehiaketa ofizialak antolatzera bidean". Hain zuzen ere, lehen esperientzia honek harre-ra ona izanez gero, urtero errepikatzea gustatuko litzaieke.

Autodefentsa tailerra

Txosna Batzordeko eragileekin elkarlanean, emakumeentzako autodefentsa tailerra ere antolatu du Jo Ta Su Boxingek. Saioak uztailaren 12an eta 16an egingo dituzte, 17:00etatik 19:00etara, klubak Latzurregi kaleko 2. zenbakian duen lokalean. Antolatzaileek azaldu dutenez, ez dago aurrez izenik eman beharrik; bertaratzearrekin nahikoa izango da.

Ekimenaren helburu nagusia boxeo herritarrengana hurbiltzea dela nabarmendu dute

Elkartasun azoka egingo dute asteburuan, Kooperazio Taldearen ekimenez

Udaletxe azpian jarriko dute postua, bihar eta etzi, 11:00etatik 14:30era bitartean

Izaro Aulestiarte DEBA

Debako Kooperazio Taldeko kideek elkartasun azoka antolatuko dute asteburu honetarako. Bihar eta etzi, hilak 11 eta 12, jarriko dute salmenta postua udaletxe azpian, Foruen plazan, eta 11:00etatik 14:30era bitartean egongo da zabalik. Salmentetik lortutako irabaziaz Manina herrixkako (Mali) emakumeei laguntzeko bideratuko dituztela jakinarazi dute.

"Maninako emakumeek tresnak eta ura behar dituzte baratze komunitarioak martxan jarri ahal izateko. Eta, baratze horiei esker, familiaren ekonomia eta seme-alaben elikadura hobetzeko aukera izango dute. Horixe izango da, hain justu, asteburu-ko azokaren helburua, ekimenaren bitartez jasotako irabaziaz proiektu horretara bideratzea", nabarmendu dute antolatzaileek.

Azokara bertaratzen direnek beste herrialde batzuetako artisauek ere produktuak erosteko aukera izango dute, eta, ohi legez, bidezko merkataritzako elikagaiak ere izango dira salgai postuan, hala nola kafea,

arroza, txokolateak, infusioak, galletak eta pasta.

Orain arte egindako azoken arrakasta ikusita, oraingo honetan ere ekimenean parte hartzeko eta beren ekarpena egiteko dei egin diete herritarrei.



Kooperazio Taldeko kideak, orain bi urteko elkartasun azokan. N.B.A.

Nortasun agiria eta pasaportea izapidetzeko aukera hilaren 29an

I.A. DEBA

Debako Udalak jakinarazi du Polizia Nazionalearen unitate mugikorra Deban izango dela uztailaren 29an, asteazkena. Beraz, herritarrek nortasun agiria eta pasaportea egiteko edota berritzeko aukera izango dute bertan, beste herri batzuetara joan beharrik gabe. Ohi bezala, Foruen plazan izango da

bulego ibiltaria, 09:30etik 13:00etara bitartean.

34 txanda

Orotara, 34 txanda emango dituzte hilaren 29rako. Gogorazi dute, hori bai, zerbitzua baliatzeko ezinbestekoa dela hitzordua alde aurretik eskatzea, udaletxeko Herriarren Arretarako Bulegoan aurrez aurre edo

943 19 28 40 telefono zenbakira deituta.

Nortasun agiria eta pasaportea egiteko eta berritzeko ez ezik, nortasun agiriaren ziurtagiri elektronikoa doan aktibatzeak aukera ere badute herritarrek; gainontzeko tasak eskudirutan ordaindu behar dira. Izapideak egiteko, ohiko dokumentazio ofiziala aurkeztu behar da –argibideak dnielectronico.es atarian ikus daitezke–. Era berean, kasu guztietan –lapurreta edo galera izan ezik– ezinbestekoa da argazki bat eramatea.

Bolari Eguna ospatuko dute bihar, larunbatez, Lasturren



Bolariak eta ikusleak, iaz Leintz Gatzagako bolatokian jokaturako tiraldi batean. GOIENA

I.A. ITZIAR

Estreinakoz, bihar, uztailak 11, Bolari Eguna ospatuko dute Lasturren. Gipuzkoa mailako topaketa izango da eta hiru bola-joko modalitatetan aritzen diren bolariak batuko dira hitzordura –hiru txirlo, bolatoki eta toka–. Antolatzaileek azaldu dutenez, ez dira Gipuzkoako bolari guztiak bertaratuko, "bai

na ordezkariak esanguratsua izango da bertan".

10:30ean hasiko da egitaraua. Lehenik, modalitate bakoitzari buruzko azalpenak emango dituzte partaideek, eta, ondoren, bola eta toka saioei ekingo diete guztiek. Sari banaketa ekitaldiak eta Lasturko tabernan egingo duten bazkariak biribilduko dute ospakizuna.

Abian dira Itziarko udalekuak, 70 bat haur eta gazteren parte-hartzearekin



Udalekuek parte-hartzaileak, Mutrikuko igerilekuan. ITZIARKO UDALEKUAK

Nerea Bedialauneta Aikorta

Itziarko udalekuek joan den astelehenean, ekainaren 29an, ekin zioten lehen txandari. Egitasmoak uztailaren 24ra arte iraungo du, eta HH3 eta LH6 arteko 70 bat haur eta gazte elkartuko ditu, hamar begiraleren gidaritzapean.

Arduradunek zehaztu dutenez, uztailaren 10era arte iraungo

duen lehen txandan 67 haur eta gaztetxo ari dira parte hartzen; bigarren aldirako, berriz –uztailaren 13tik 24ra bitartean egingo dena–, 39 lagunek eman dute izena.

Parte-hartzaileak egunero elkartuko ditu, hamar begiraleren gidaritzapean. Arduradunek zehaztu dutenez, uztailaren 10era arte iraungo

Batzoki
Asteburuetako menuak,
plater konbinatuak...
Plaza Zaharra (Soraluze)
Erreserbak: 638 91 15 97

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
Jarri esazu aurre publicitateari
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean
943 743 704
688 769 657

mm
HORTZ KLINIKA
Odontologoak
Nora Unzetabarrenetxea
Maitena Arrizabalaga
Gipuzkoa kalea 20, Zarautz
943 83 04 24 - 653 92 17 12

IZENBE
Gosariak • Txikiteoa • Pintxoak
Itur kalea • 943 19 24 73 • DEBA

"Debako kultura musikalariai gure ekarpen xumea egiteko asmotan sortu dugu otxotea"

UNAI LEKUBE AZKENKANTA OTXOTEKO KIDEA

Izaro Aulestiarte

Santa Maria elizako klaustroak Azkenkanta Otxotearen lehen kontzertua hartuko du bihar, hilak 11, 12:30ean. Zortzi ahots graberen batura da taldea: Peio Fuentes eta Iker Blanco (lehen tenorrak); Alex Laskurain eta Unai Lekube (bigarren tenorrak); Ruben Ramada eta Jesus Aramberri (baritonoak); eta Anto Calleja eta Gustavo Laskurain (baxuak). Horietako bi, Lekube nahiz Aramberri, Debakoak dira.

Nolatan eratu duzue otxotea?

Otxoteen inguruko beste edozer bezala, poteo baten bueltan sortu zen ideia. Kasu honetan, Deban izan zen; Kanbon urtero ospatzen den Otxote Jaialdiari buruz hitz egiten ari ginela, Deban horrelako zerbaitea egitea polita izango zela aipatu genuen. Horregatik, pausoa eman, eta Deba, Eibar eta Donostialdeko

lagunez osaturiko otxotea sortzea erabaki genuen.

Hemen inguruotan ba al dago edo egon izan da otxoteen tradizioirik?

Kuadrillak tabernaz taberna kantatzen, txikiteoa girotzen, ibiltzen zireneko ohituratik jaio ziren otxoteak. 60ko hamarkadan, Deban Ondar Beltz Otxotea existitu zen, baina orduz geroztik ez dugu uste antzeko talderik izan denik. Deban musika tradizio izugarria daukagu, eta horri otxote moduan gure keinu xumea egitea izan da gure asmoa.

Zer berezitasun dute otxoteek, abesbatzekin alderatuta, adibidez?

Tradizioz, otxote bat ahots grabez osaturiko talde bat da, eta, izenak dioen bezala, zortzi taldekidez osatuta egoten da [soka bakoitzeko bi kide]. Hala ere, badaude beste mota batzuetakoak ere; emakumez soilik osatuak edota otxote mistoak, besteak

beste. Abesbatzak, ordea, askoz ere aukera gehiago ematen du, taldekide eta ahots mota nahiz estilo gehiagorekin.

Aurrez ere kantatu izan duzue elkarrekin beste talde edo proiektu- ren batean?

Zortziak ez gara sekula elkarrekin aritu. Debako Aitzuri eta Donostiako Easo Abesbatzatik hasi eta beste hainbat proiektu musikaletako kide izateaz gain, euskal musika eta folklorea maite dugun lagun talde bat besterik ez gara. Hori da politena; alegia, musika, folklorea, otxoteak eta, orokorrean, abestea maite dituzten eta elkar ezagutzen ez zuten zortzi lagun elkartu garena.

Zer-nolako emanaldia izango da biharkoa?

Otxoteen esentziari omenaldia egiteko helburuarekin, euskal folkloreako betiko abestiekin osatutako emanaldia prestatu



Azkenkanta Otxotea osatzen duten zortzi taldekideak, elizako klaustroan. AZKENKANTA

dugu; hamar-hamabi kanta abestuko ditugu. Eta, Debako elizako klaustro zoragarriak eskaintzen digun tokia eta akustika aprobetxatuz, guztion artean tradizio polit horretaz disfrutaztea espero dugu. Sarrera doakoa izango da, noski.

Lehenbiziko kontzertua izango da zuentzat, talde gisa. Zer sentsazio- rekin zaudete?

Debako kultura musikalariai gure ekarpen xumea egiteko asmotan sortu dugu otxotea, eta kontzertu bakarra emateko ideiarekin. Hortik dator otxotearen izena:

Azkenkanta. Baina hainbeste ari gara gozatzen kontzertua prestatzen, nork daki aukera gehiago egongo diren...

Beraz, ez duzue baztertzen proiektuari jarraipena ematea... Baliteke ez izatea lehen eta azken kantaldia?

Taldekide batzuk aztoratuta dabilta prestaketekin, eta batek daki zer gertatuko den hemendik aurrera. Baina benetan nahiko genukeena zera da: edozein motatakoak izanda ere, tradizio polit hori berreskuratzea animatuko diren beste otxote batzuk ere sorrarazten laguntzea.

Egitarau bete-betea dakar, beste urte batez, Udako Kultur Loraldia

I.A.

Bart iluntzean abiatu zen aurtengo Udako Kultur Loraldia Deban, Asier K umoristaren ikuskizunarekin. Abiapuntua baino ez zen izan, ordea, abuztuaren 1era arteko programazioa ondu baitute Kultur Elkartek eta herriko beste zenbait eragile elkarlanean.

Tokiko ondarea eta magia izango dira protagonista, adibidez, hurrengo ekimenetan.

Batetik, Itziarko Santa Maria eliza ezagutzeko bisita gidatua egingo du bihar, uztailak 11, Alex Turrillas Aranzeta historiazale eta Debako Kultur Elkarteko kideak, *Ibilaldi bat gure historian zehar* izenburupean. Bisita 11:00etan izango da eta izen-ematea zabalik dago, 8 euroan, autobusa eta hamaiketako barne; parte hartu nahi dutenek mezua bidali behar dute 625 70 52 80 zenbakira.

Bestetik, Iago magoak (Azpeitia, 2003) doako proposamen bikoitza dakar Debara hilaren

16an, ostegunetik 10:45ean, umeentzako magia ikastaroa emango du, zumardiko karpan; eta arratsaldean, 18:00etan, familia guztiari zuzendutako magia ikuskizuna aurkeztuko du, Kultur Elkarteko plazan.

Egitarauak uztailaren 18an izango du jarraipena, binilo-*pin-txadek* eta azokak osatutako egun osoko eskaintzarekin.



Iaz egindako bisita gidatuetako bat. A.T.

Debako banda, "oso pozik" eta esker oneko kontzertuaren ondorenean

I.A.

Iragarria zuten emanaldia berezia izango zela, eta aurreikuspenak bete egin ziren joan den larunbatean, hilak 4; jendetza batu zen zumardian, eta publikoak gozatu egin zuen musika bandak Sunerekin eta Xabi Solanorekin emandako kontzertuan.

Elkarlanaren eta hilabeteetako lanaren emaitza jendaurrean

aurkeztu ondorenean, esker oneko azaldu da Debako Musika Banda. "Oso pozik gaude emanaldiari egin zitzaion harrerarekin; kontzertu itzela izan zen eta oso giro polita sortu zen zumardian. Eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratu ziren herrietarrei, baita urtean zehar beren babesa erakusten diguten guztiei ere", nabarmendu dute.



Xabi Solano, Sune eta bandako kideak, kontzertuaren une batean. INMA ALBERDI

Punta-puntako bertsolariek girotuko dute gaur Plaza Zaharra

Joan den ostiralean hasi zen Iturri Ondoan egitasmoa Deban, Arineketan taldearen *Zaharrrak berri* ikuskizunarekin, eta gaur, hilak 10, bertso saioa izango da: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Nerea Elustondo eta Agin Laburu ariko dira agertokian, *a cappella*, Aimar Karrikaren gidaritzapean. Saioa 22:00etan hasiko da, Plaza Zaharrean.

Xabier Alberdi izango da 'Marea gora' zikloko hirugarren gonbidatua

Xabier Alberdi Lonbide itsas historialari eta Euskal Itsas Museoko zuzendariak *Euskal itsasontzigintza eta itsas historia XVI. eta XVII. mendeetan* izenburuko berbaldia egingo du asteazkenean, uztailaren 15ean, Kultur Elkartean, 19:00etan. *Marea gora* hitzaldi sortaren baitan aurreko antolatutako hirugarren solasaldia izango da.



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA
ESKAINTZA
Elgoibar. Mintxetako eta Olaizagako harre-
ra-zerbitzuan lan egiteko pertsona behar
dugu; batez ere, asteburuetarako. Udan
asteen zehar ere lan egiteko malgutasuna
eskatzen da. 663 45 65 27 / *aazpiazu@
emtesport.com*

ESKAERAK
Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago,
etxeko langile moduan edo orduka. Malgu-
tasun osoa. Titulu soziosanitarioa daukat.
602 49 05 95

SALEROSKETAK

EROSI
Eibar. Helduentzako bigarren eskuko bizi-
kleta erosiko nuke. 637 58 78 11

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU
Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan,
Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

KINTO OSPAKIZUNA

Elgoibar. 1963an jaiotakoen kinto bazkaria,
irailaren 19an. 12:00etan Plaza Handian
elkartuko dira argazkia ateratzeko, luntxa
egingo dute Ibai Ondon, eta 14:45ean baz-
karia, Txarridunan. Interesatuak 75 euro
ordaindu beharko dituzte, Laboral Kutxan,
izen-abizenak zehaztuta: ES35 3035 0007
2100 71147619.

BESTELAKOAK

Elgoibar. Ekainaren 30ean eskumuturreko
erlojua galdu nuen, Santa Ana, Trenbide edo
Bernardo Ezenarro inguruan. 40 urtean neu-
kan erlojua, eta balio sentimental handikoa
da. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko nuke
deitzea. 688 60 56 06

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06 Une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



ELGOIBAR
Laiene
Zorionak, Laiene!
Asteburuan ere zure
8 urteak ospatzen
jarraituko dugu. Muxu
potolo bat, etxeko
guztion partez



SORALUZE
Juan
Segi holakoxe pertsona
ederra izaten. Lagun eta
miresle ezkutu baten
partez.



SORALUZE
Aiora
Zorionak, Aiora!



SORALUZE
Oihana
Zorionak Oihana!
Uztailaren 9an, 44 urte.
Dantza asko egin eta
ondo pasatu auzoko
jaixetan! San Andresko
lagunak.



SORALUZE
Aina eta Lea
Zorionik beroenak eta besarkadarik goxoena bizitza
alaitzen diguzuen sorginentzat. Urte askotan gozatu
dezagun elkarrekin!



ELGOIBAR
Izaro
Zorionak, Izaro! Primeran
pasa zure eguna!
Jarraitu beti bezain alai
eta irribarretsu, ondoan
gaudenok asko
eskertzen dugu eta.
Muxu eta besarkada
potolo bat, maite
zaitugun guztion partez!

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/
zorionagurrak helbidean sartu.
 - Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo
e-postaz *zorionagurrak@barrena.eus*. Zehaztu
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa)
eta testua.
 - Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Iragarki sailkatua
argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako
iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren
iragarkien ondorioz sor daitezkeen
operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko
iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10
euro. Argazkiarekin: +5 euro.



*Zorion agurrek
saria dute
Barrena-n!*

Argitaratzen diren zorion agurren artean
**Galle-Tiak Fabrik-eko
produktu pertsonalizatuak
zozkatuko dira astero!**

Aste honetako irabazlea: IZARO ZUBIAURRE LANDABURU

Joan den asteko
irabazlea!



ELGOIBAR

Jose Maria
Astigarraga Lizarralde



Mari Carmen Sudupe Urbietaren alarguna.
2026ko uztailaren 4an hil zen, 91 urte zituela.

Hitz gutxiko eta bihotz handiko pertsona.
Familia zen zure indarra; maitasuna, zure altxorra.
Zure aztarna betirako izango da gure bihotzean.

Etxekoak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

OSASUN GIDA.....



RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea - Elgoibar

943 531 953
669 565 745





aldaz

hortz klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22



fisio&más

Fisioterapia sucreratuia eta
Kirol Berregokitzua

RPS 177/12

Trenbide kalea, 13

943 740 191 / 667 953 628

www.fisio-mas.com



leku
eder

hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053



NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPSOMATUA

RPS 203/16

Yeribio Etxebarria, 22
Elbar

677 551 850



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 10

- **ERMUA Omenaldia:** **ETak eraildako ermuarrak gogoan** Sotero Mazo eta Miguel Angel Blanco herritarrak omenduko dituzte. Ekitaldi instituzionala. Herritarrei irekia egongo da. San Pelaio parkean dagoen biktimen omenezko monolitoaren aurrean, 11:00etan.
- **MENDARO Odol ateratzeak** Txanda hartzeko: 632 40 37 95. Ikastolan, 16:30etatik 20:30era.
- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko, *gotatanta*.

eus webgunean edo Whatsapez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.

- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- **ERMUA Erakusketa:** **'Emakume zientzialariak itzalean'** Erakusketan panel elebidunak daude ikusgai, zientziaren arloan ikertzaile handiak izan diren eta diren emakumeen biografiak jasotzen dituztenak. Erakusketa doan da eta Izarra Centren zabalik dagoen ordutegian bisitatu daiteke, 08:00etatik 22:00etara, uztailaren 15era arte.

- **DEBA Erakusketa:** **'Sakona/Lo hondo', Clara Leton Gill** Elizako klaustroan, asteartetik igandera, 17:00etatik 19:00etara, baita eliza irekita dagoen ohiko orduetan ere. Sarrera, doakoa. Uztailaren 31ra arte.
- **DEBA Kontzertua: J.M. Atlantida** Ondargain tabernan, 20:00etan.
- **DEBA Iturri ondoan: bertso saioa.** Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Nerea Elustondo eta Agin Laburu. Gai-jartzailea: Aimar Karrika. Plaza Zaharrean, 22:00etan.

LARUNBATA 11

- **ITZIAR Bolari Eguna** **Lasturren (Gipuzkoako Bola Topaketa)** 10:30ean, modalitate bakoitzaren aurkezpena Lasturren: hiru

txirilo, bolatoki eta toka. Ondoren, bola eta toka saioak. Amaitutakoan, sari banaketak modalitate guztietan. 14:30ean, bazkaria, Lasturko Tabernan.

- **ITZIAR Bisita gidatua: Itziarko Santa Maria eliza** Hizlaria: Alex Turrillas Aranzeta –gaztelaraz–. Sarrera, 8 euro –autobusa Debatik eta hamaiketako barne–. Izen-ematea: 625 70 52 80 telefonoan. Itziarko Santa Maria elizan, 11:00etan.
- **ITZIAR Bisita gidatua: 'Lastur familian'** Iraupena: ordu eta erdi. Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak. Prezioa: 10 euro –12 urtetik beherakoentzat, 5 euro–. Irteera puntua: San Nikolas plaza. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Lasturko San Nikolas plazan, 11:00etan.
- **DEBA Elkartasun azoka** Kooperazio Taldearen



ELGOIBAR Urazandiko jaiak

OSTIRALA 10: 19:00etan, jaien hasiera, Urazandiko parkean. Segidan, txapel, igel-toka, chaves eta ping-pong txapelketak. Herri Eskolan. 19:30ean, pintxo-poteoa, eta disko-festa DJ Tillarekin. 00:00ean, DJ f:no.love.official. 01:00etan, DJ Tilla.

LARUNBATA 11: 10:00etan, puzzle lehiaketa. 12:00etan, Josejuren historiaurreko erakustaldia. 13:00etan, kalejira, Mauxitxa txarangarekin. 14:30ean, herri bazkaria. 16:30ean, dantzaldia eta mariatxiak. 17:00etan, Irati eskulan tailerra, altxorraren bila. 18:00etan, buruhandiak, Urazandi parkean eta Herri Eskolan. 19:00etan, 80ko eta 90eko musika. 22:00etan, kontzertua: Brilet. 00:00etan, DJ Tilla.

IGANDEA 12: 11:00etan, haur parkea eta apar festa. 13:00etan, salda eta txorizoa. 15:00etan, otarrearen zozketa. 19:00etan, suziriak, jaiak amaitzeko.



MENDARO V. Mendaroko Garagardo Azoka solidarioa: 'Zerumugaren gainetik'

Alzheimerra edo beste demenziaren bat duten pertsonen Gipuzkoako Afagi elkartearen alde.

OSTIRALA 10: Enpresetakoen Eguna. 13:00etan, enpresen herri bazkaria. Luntxa, bermuten dastaketa, jolasak, zozketak eta sorpresak. 18:00etan, arratsalde-pasa, DJ Estherrekin, Uztargiko arkupeetan. 20:30ean V. Garagardo Azokaren elkartasun afaria, Afagiren alde. Erreserbak, Uztargin (943 03 01 50). 00:00etan, Remember Oraiko by DJ Esther Uztargi, terrazan.

LARUNBATA 11: Herriaren Eguna, Cantabria Chapterren elkarlan bereziarekin. 09:00etan, II. motorzaleen elkartasun kontzentrazioa, Herriko Enparantzan. 11:00etan, bertako artisautza erakusketa, Goñati frontoian. 12:00etan, Cantabria Chapterrek antolatutako moto irteera. 14:00etan, V. Garagardo Azokaren elkartasun bazkaria, Afagiren alde, jolas, zozketa eta sorpresekin. 20:30ean, Mendaroko V. Ongintza herri afaria, zozketa eta sorpresekin.

IGANDEA 12: Haurren Eguna. 11:00etan hasita, bertako artisautza erakusketa, Goñati frontoian. 13:00etan, V. Garagardo Azokaren elkartasun bazkaria, Afagiren alde. 17:00etan, Leire Lazkanoren *Aurkitutako harrien* erakusketa, Chocolates St. Geronsek oparitutako txokolate-janarekin.



SORALUZE San Andres jaiak

OSTIRALA 10: 19:00etan, makala altxatzea eta kanpai jotzea. Ondoren, txorizo-probatzea.

LARUNBATA 11: 12:00etan, IV. Patata-tortilla Lehiaketa. Aldez aurretik izena eman behar da. Nahi duenak har dezake parte. Izen-ematea, bikoteka. Deitu edo idatzi: 699 74 98 13 zenbakira. 17:30ean, Asierren eta Iñakiren omenezko Pilota Txapelketaren finalak. 19:30ean, Bergarako zezenak. 21:30ean, afaria eta ogitartekoak. 00:30ean, erromeria, Obaneukerekin.

IGANDEA 12: 12:30ean, eskuz binakako pilota partidua. 13:30ean, meza. Egun osoan, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu bertsolariak eta Itzeder Arrizabalaga eta Lidia Irigoien trikitilariak. 14:30ean, bazkaria, elkartearen, trikitilariak eta bertsolariak girotuta. 18:00etan, herri kirol erakustaldi mistoa. 19:00etan, bola-premioa. 19:30ean, Bergarako zezenak. 21:00etan, afariak, elkartearen.

ASTELEHENA 13: 12:30ean, meza, auzoan hildakoen alde. 14:30ean, bazkaria. Egun osoan, Lizaso eta Egaña bertsolariak. Bazkalostean, dantzaldia, Laja II. arekin eta Lutxurdiorekin. 18:00etan, umeentzako jolasak. 19:00etan, emakumezkoen bola-txapelketa. 21:30ean, afaria. Afalostean, erromeria eta jaien amaiera.

ekimenez. Irabaziak Manina herrixkako (Mali) emakumeei laguntzeko bideratuko dituzte. Udaletxe azpian, 11:00etan.

- **SORALUZE Tximas Eguna** Tximas animalia-aterpetxerako dirulaguntza biltzeko eguna. 12:00etatik aurrera, Tximas animalia-aterpetxearen postua eta gaztetxeko barra zabalik. 12:30ean, J.M. Akustik-en kontzertua. 16:00etan, *Cuori Liberi* dokumentala. 18:00etan, animalien santutegiei buruzko hitzaldia. 21:30ean, kontzertuak: Beleak, Sexpeares eta Elektrik ASS.
- **DEBA Azkenkanta Otxotearen kontzertua** Elizako klaustroan, 12:30ean.
- **SORALUZE Ahalduztze eskola: 'Batukada feminista'** Soraluzeko Emakumeon* Ahalduztze Eskolako udaberri eta udako egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Herri Antzokian, 10:00etan.

Emakumeon* Ahalduztze Eskolako udaberri eta udako egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Herri Antzokian, 10:00etan.

- **DEBA Elkartasun azoka** Kooperazio Taldearen ekimenez. Irabaziak Manina herrixkako (Mali) emakumeei laguntzeko bideratuko dituzte. Udaletxe azpian, 11:00etan.
- **DEBA Nazioarteko Flysch Organo Jaialdiko kontzertua** Santa Maria elizan, 12:00etan.
- **DEBA Emakumeentzako autodefentsa tailerra** Jo Ta Su Boxingek antolatuta, Txosna Batzordeko eragileekin elkarlanean. Jo Ta Su Boxingek lokalean: Latsurregi kalea 2. 17:00etan.
- **DEBA Kuadrillen bilera** Gaztetxean, 19:30ean.

ASTELEHENA 13

- **ELGOIBAR Emakumeentzako hausnarketa taldea: 'Norberaren burua zaintzea errebelia gisa'** Loredi Salegik gidatuko du saioa. Ele bietan. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 18:00etan.

IGANDEA 12

- **SORALUZE Ahalduztze eskola: 'Batukada feminista'** Soraluzeko

• **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.

ASTEARTEA 14

- **ELGOIBAR Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua** Merlin Medinarekin, 16:00etatik 19:00etara. Bakarkako saioak. Doan. Beharrezkoa da aurretik hitzordua hartzea. 688 64 09 83. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 16:00etan.
- **MENDARO Plaza dantza ikastaroa** Gazte Asanbladak antolatuta. Gaztetxe aurreko aparkalekuan, 18:00etan.
- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak

antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.

ASTEAZKENA 15

- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiera itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro–. Erreserbak egiteko: *geoparkea.eus*. Anes Arrinda pasealekuan (pantalana), 18:30ean.
- **DEBA Marea Gora hitzaldi zikloa: 'Euskal itsasontzigintza eta itsas historia XVI. eta XVII. mendeetan'** Hizlaria: Xabier Alberdi. Debako Kultur Elkarteak, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Lumina zirkua** Musika Ensenble taldeak

aurkeztuko du. Kalegoen plazan, 22:30ean.

OSTEGUNA 16

- **DEBA Umeentzako magia ikastaroa lago Magoren eskutik** Doan. Iraupena: 2 ordu. Euskaraz. Zumardiko karpan, 10:45ean.
- **DEBA Marearteko zabalgunera bisita gidatua** Informazio gehiago eta erreserbak egiteko: *geoparkea.eus*. Errotaberri parkinean, Sakonetan, 11:00etan.
- **DEBA Emakumeentzako autodefentsa tailerra** Jo Ta Su Boxingek antolatuta, Txosna Batzordeko eragileekin elkarlanean. Jo Ta Su Boxingen lokalean: Latsurregi kalea 2. 17:00etan.

- **DEBA Magia ikuskizuna: lago Mago.** Sarrera doan. Kultur Elkarteko plazan, 18:00etan.
- **MENDARO Bea Asurmendiren kontzertua** Mesa 7 taldeak antolatu du kontzertua, Udalaren, Uztargi tabernaren eta Gararock taldearen laguntzarekin. Sarrerak salgai Uztargi tabernan –15 euro–. San Agustin kultugunean, 21:30ean.

OSTIRALA 17

- **SORALUZE Odol emaileen hitzordua** Itxaropenan, 16:30etik 20:30era.
- **DEBA Galerna Festa** Gazte Asanbladak antolatuta. 17:00etan, pala eta ping-pong txapelketa.



ERMUA Sallabenteko jaiak

OSTIRALA 10: Erdi Aroko Azoka Handia. 17:00etan, haur parkea. 19:00etan, gaita-poteoa, kalejirarekin, Eibarko Ar Burgas eta Galiziako kultur etxeko Os Galaicos gaitari taldearen eskutik. 19:30ean, Sallabenteko jaien hasiera. 20:30ean, Movida Promovida diskoteka, mugikorra 21:30era arte. 23:00etan, azokaren itxiera, eta festak aurrera egingo du Movida Promovida diskoteka mugikorrarekin, 03:00rak arte.

LARUNBATA 11: 11:00etan, Erdi Aroko azokaren irekiera. 12:30ean, 80ko hamarkadako bermuta otarrainxkarekin. 18:00etan, animazioa auzoan zehar, Irulitxa txarangaren eskutik. 19:00etan, sardina eta saiheski jan herrikoia. 23:00etan, azokaren itxiera. 23:00etan, dantzaldi handia, Phoenix Gira Fortuna 2026 orkestraren eskutik, 03:00rak arte. Atsedendian, bingo handia egingo da.

IGANDEA 12: 11:00etan, Erdi Aroko azokaren irekiera. 11:30ean, animazioa auzoan zehar, Andrajozak + Sorginkada + BesFemband batukada feministaren eskutik. 12:00etan, paella lehiaketa –izen ematea, auzoko tabernetan–. Arroza Jai Batzordeak jarriko du. 12:30ean, Igel Txapelketa haurrentzat. 13:00etan, omenaldia auzoko pertsona ospetsu bati. 13:00etan, apar festa, 14:00ak arte. 13:30ean, postre lehiaketa, patioan. 13:30ean Igel Txapelketa helduentzat. 18:30ean, sardina eta saiheski jan herrikoia. 19:00etan, mokadua hirugarren adinekoentzat. 19:30ean, Versionarios taldearen kantaldia, 21:00ak arte. 22:00etan, azokaren itxiera eta jaien amaiera.



ERMUA Santixau jaiak

ASTEARTEA 14: 19:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, txarangen arteko jolasen hasiera, *pepino*a eta triatloi jokoak. Txarangen Batzordeak antolatuta. 20:30ean, Martxoaren 8a plazan, *urban music* kontzertua, Xsakara musikariarekin.

ASTEAZKENA 15: 19:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, txarangen arteko jolasak. Oraingo honetan, *harra* eta soka-tira lehiaketak izango dira. 20:30ean, Martxoaren 8a plazan, Orlis Pineda abeslari kubatarren kontzertua, Komite Internazionalistak antolatuta.

OSTEGUNA 16: 21:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, herri ogitartekada. Ogitartekoak eta edariak banatuko dira oso salneurri berezian. Txarangen Batzordeak antolatuta. 22:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, txarangen abesti-lehiaketa. Lehiaketatik kanpo, Irulitxatxaranga arituko da giroa alaitzen.

OSTIRALA 17: 19:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, txarangen arteko jolasak, adreiluak eta jatorrizko bekatuaren jokoak, Txarangen Batzordeak antolatuta. 22:00etatik 01:00etara, puntu morea San Pelaio kalean. 22:00etan, Makis 37 taldearen kontzertua. Eta 23:00etan, El Drogas. Biak, San Pelaio plazan. 01:00etatik 03:00etara, puntu morea Erdikokale 5ean –antzinako Bolintxon–.

- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatutako txapelketa. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- **MENDARO 'Bertsotan gixez' bertso saioa** Gazte Asanbladak antolatuta. Herriko Enparantzan, 20:30ean.
- **DEBA Iturri ondoan: 'Begiradak' ikuskizuna** Plaza Zaharrean, 22:00etan.

ZINEMA

ELGOIBAR

KALEGOEN PLAZA (Aire libreko zinema)

'Los futbolisimos 2' Ostirala, 17: 22:30

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

'Haciendo amigos' Larunbata, 11: 17:00, 19:45, 22:30.

Igandea, 12: 17:00, 20:00. Astelehena, 13: 19:30.

'La muerte de Robin Hood' Larunbata, 11: 17:00, 19:45, 22:30.

Igandea, 12: 17:00, 20:00. Astelehena, 13: 19:30.

'Los últimos días de María Antonieta' Larunbata, 11: 19:45, 22:30.

Igandea, 12: 20:00. Astelehena, 13: 19:30.

'Minions & Monsters' Larunbata, 11: 17:00.

Igandea, 12: 17:00.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 10 BARIKUA Yudego / A. Zalduegi / M. Alves
- 11 ZAPATUA Oruesagasti / **Arriola** / A. Zalduegi / I. Lecumberri
- 12 DOMEKA Oruesagasti / A. Zalduegi / I. Lecumberri
- 13 ASTELEHENA Barrenetxea / L. Apraiz / A. Alcala
- 14 MARTITZENA Soto / L. Apraiz / I. Ugarte
- 15 EGUAZTENA Garitaonandia / L. Apraiz /A.M. Baz
- 16 EGUENA Arriola / L. Apraiz / M. Alves
- 17 BARIKUA Fernandez / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri

09:00-14:00 / 09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)

Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30

Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1- 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

AZKEN BERBA

Ez beste inork



ANTTON AIZPURUA

Ikasitakoak errepasoa eta birgorratzea behar ditu ahaztuko ez badugu. Euskaltzaleok ez diogu nekeari aurre hartu behar, ordea, galbanari halabeharrez egiten baitio ihes euskararen auziak. Euskarak hitzunik behar izateaz gain, dendariak, lagunak, ikasleak, irakasleak eta epaileak ere berekin behar ditu irauteko asmorik badu.

Ustezko hizkuntzen arteko bizikidetzak orekatuak gehiago du ustezkotik orekatutik baino. Horregatik, premiazkoa da orekatik ustezkotik baino gehiago ikusten dutela diotenei inozo traza hartu baino –izan badiren arren– mesfidantza erakustea. Diglosiaren gorengo mailak eskuragarri uzten dizkien pribilegioak mantentzeak ez baitakar behetoon garondoetan euren zapaten markak egonkorrago bihurtzea soilik; euskararen potentzialtasunaren balioa neurtzen dabiltzanak euskaratik urruntzen ditu, eta hauek epaileak bezain ezinbestekoak zaizkio euskarari.

Orain irmo eta tentuz jarduteko garaia da. Ikasgelako atzeko aldetik paper bola bat botatzen zigutenean nola, aurkaria nor den identifikatzen asmatu behar dugu inguruan ditugun guztien aurka egin baino. Herentziaz jasotako gerra honen azken bataila klase-posizio jakin bateko erdaldunek hasi dute, ez beste inork.

BUKATZEKO

"Ea datorren urtean Urazandiko Puzzle Txapelketan parte hartu dezakedan"

ALEJANDRO CLEMENTE ESPAINIAKO PUZZLE TXAPELDUNA

Ainhua Andonegi ELGOIBAR

Elgoibarko Urazandi auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan, eta, horren barruan, Puzzle Txapelketa antolatuko dute biharko. Banaka edo binaka hartu daiteke parte: banakakoan 300 piezako puzzlea osatu beharko da, gehienez ere ordu eta erdian. Binaka, aldiz, 500 piezako izango da egitekoa, bi ordu azpitik. Izena emateko, www.aepuzz.es webgunean sartu behar da.

Lehiaketa horren harira, Alejandro Clemente Espainiako txapelduna elkarriketatu du BARRENAk. Bartzelonan bizi da egun, baina ama elgoibartarra du. Urazandiko Puzzle Txapelketa begiz jota duen arren, oraindik ez du parte hartzerik izan, baina datorren urtean etortzeko ahalegina egingo duela adierazi du.

Kataluniarra zara, baina baduzu Elgoibarrekin loturarik. Azaldu egiguzu.

Mantxakoak dira aitona-amonak, eta 60ko hamarkadan Elgoibarrera emigratu zuten. Osabak eta ama, beraz, elgoibartarrak dira. Gero, nire aita ezagutu zuen, eta Bartzelonara etorri ziren bizitzera. Ni Bartzelonakoa naiz, baina sarri joaten naiz senideak bisitatzen Elgoibarrera. Ea datorren urtean Urazandiko Puzzle Txapelketan parte hartu dezakedan. Irrikan nago, baina, momentuz, ezin izan dut.

Nondik datorkizu puzzleak egiteko zaletasuna?

Umetan hasi nintzen puzzleak egiten, beste hainbat ume bezalaxe. 2019an, Interneten ikusi nuen binakako puzzle txapelketa bat zegoela Bartzelonatik gertu dagoen herri batean, eta aitarekin hartu nuen parte. Laugarren geratu ginen, eta antolatzaileek esan zidaten lehenengo aldia izateko oso ondo ikusi nindutela. Han eza-gutu nituen Aepuzz elkarteak kideak, eta orduan jakin nuen Espainia osoan antolatzen zizutela txapelketak. Handik aste batzuetara Espainiako Txapelketa jokatu zela azaldu zidaten, eta parte hartzera gonbidatu ninduten.

Eta Espainiako Txapelketan izan zinen; zer moduz moldatu zinen?

Pozik geratu nintzen. Puzzle handiak egitera ohituta nengoen, baina 500 piezako puzzleerik sekula egin gabe nengoen. Hamaikagarrena izan nintzen, eta praktikatzeko segitzeko gozotzen nintzen handik. 400 bat lagunek hartu zuten parte, eta izugarria iruditu zitzaidan. Teknika aldatu, eta puzzle handiak egiteari laga nion, 500 piezakoak azkartasunez egiteko. Pandemia etorri zen ondoren, eta itxialdian puzzle pila bat egin nituen. 2022ra arte etenda egon ziren txapelketak, eta tarte hura entrenatzeko erabili nuen.

2022an Espainiako Txapelketa irabazi zenuen; espero zenuen?



Alejandro Clemente. LAGATAKOA

Ez nuen espero. Nire bigarren txapelketa zen, eta bakarka zein bikoteka irabazi nuen txapelketa, eta taldeka hiru-garren izan ginen. Lehenengo edizioarekin alderatuta hamar

"Urtero irabazi dut Espainiako Puzzle Txapelketa, 2022tik, eta neu naiz egungo txapelduna"

minutu hobetu nuen nire denbora, eta hori asko da. Urte berean, Munduko Puzzle Txapelketa jokatu zen, Valladoliden, eta hura ere irabazi nuen. 900 bat partaide zeuden, herrialde askotakoak, eta irabaztea sekulakoa izan zen. Urtero irabazi dut Espainiako Puzzle Txapelketa, 2022tik, eta neu naiz egungo txapelduna.

Zein teknika daukazu puzzleak egiteko?

Batzuek kanpoko markoa egiten dute lehenengo, eta gero barrukoa. Nik ez. Nik zatika egiten dut, kolore bereko piezak edo marrazki bera dutenak aukeratuta. Neure burua trabatuta igartzen badut edo konaturatzen banaiz ez nabilela piezak abiadura egokian kokatzen, beste atal batekin hasten naiz.

Zein da zure denborarik onena 500 piezako puzzle batekin?

34 minutu eta 20 segundotan daukat denborarik onena txapelketa batean; hau da, sekula egin gabeko puzzle batean. Aurrez egindakoren bat bada, 30 minututik behera moldatzen naiz, eta inoiz 25 minutuan ere egin izan dut. Txapelketa ofizialtan beti izaten dira merkaturatu gabeko puzzleak, eta partaide guztiok puzzle bera egiten dugu.

Puzzle bat egin ondoren, zer egiten duzu harekin?

Txikiak egin eta desegin egiten ditut, baina handiak gorde egiten ditut. Horiek tentu handiz aukeratzen ditut. Gustatzen zaidan irudiren bat hartzen dut etxeko hormaren batean jartzeko, eta enkarguz ere eskatzen dizkidate lagunek edo senideek. 9.000 piezako da egin izan dudana handiena, eta 6.000koak ere asko dauzkatzeginda.

Batu zaitez Tokikom Ligako Barrena taldera eta parte hartu asteroko zozketan!

8. asteko saritua: Haritz Alberdi (Itziar)
Saria: Egotzako gazta